

Elantxobeko ahozko narrazioak

IÑAKI GAMINDE*

Elantxobeko ahozko narrazioak izenburupean, etnotestu alorrean koka daitezkeen ahozko kontaera– bilduma ematen dugu. Bilduma honetako testu guztien tasunik amankomunena eta behinena ahozkoak izatea da, hots, ahoz emanikoak eta ahal bezain fidelki papereratu direnak. Bestalde, eta herriaren kontatzeko era, pentsaerak, siniskerak eta bizimodua irudikatzen dituzten gainoan etnografiarekin lotuta daudena ezin uka daiteke. Badaukate, halaber, beste berezitasun amankomun bat, ez dira edozein gairi buruz jaulki daitezkeen testu libreak.

Balio etnografikoari legozkiokeen gora beherak bazter utzita, balio linguistiko handia daukatelakoa daukat, izan ere, testu mota horietan erabiltzen den berbaikuna islatu ezeze, transkripzio fidela egin denez, hizkuntzaren barrietatearen azterketarako material interesgarria osatzen dutelakoa ere badaukatu.

Ahozko testuak papereratzen ihardun duen edozeinek dakikeen legez, gaitz suertatzen da fideltasun osoa eta ñabardura guztiak paperean gordetzea; berori dela eta, transkripzioari dagozkion ohar batzuk egiteari interesgarri deritzot. Erabiltzen den alfabetoari dagokionez, esan beharra dago, fonetika alorreko teknologiak erakutsi duen legez, belarriz egiten diren transkripzioetan ezin ñabardura fonetiko guztiak transkriba daitezkeena; halandaze, transkripzio sasi fonetiko edo fonologikoa erabiliko dugu. Ez da, bestalde, alor honetan gauza handirik asmatu behar, izan ere, aintzindariak ebakiriko bideari lotzea baino ez dugu; horregatik, Azkuek, Barandiaranek eta beste batzuek ezarritako eredu bera erabiliko dugu. Hala eta guztiz ere, lekukoek egiten dituzten etenak irudikatzea dugu arazorik gaitzenetarikoa, berau konpontzekotan gure testuetan komak baliatuko ditugu eta baita lekukoek etenak egiteko erabiltzen dituzten bokalak ere. Bokalok, barietateen arabera, ‘a’, ‘e’ edo esandako aurreko berbaren azken bokala errepikatua izaten dira.

* UPV. EHU.

Gaiei bagagozkie, esan behar da ezen, eurok nahikoa desberdinak direla; batetik, ipuin sailean argi eta garbi koka daitezkeenak ditugu. Dena dela, sail honetan aurki sar daitezkeen beste batzuk ere baditugu, askotan egiazkotzat edo pasadizutat har litezkeen batzuk sail honetakoak direla ematen du eta. Bestalde, pasadizuak eta egintza errealetan oinarritutako testu errekreatuak ere bildu ditugu. Azken sail nagusia sineskerak islatu eta deskribatzen dituzten testuek osatzen dute.

Jatorrizko berbaikunean emaniko testuaren ondoan euskara batuaz egini-ko notazioa ere ematen dugu irakurketa errazteko. Euskara batuaz egini-ko testu hauetan, ahal dela, jatorrizkoarekiko lotura hautsi ez egiteko bizkaierarenak eta euskaldun guztionak diren berbak eta esapideak erabiltzen ditugu. Testuetan erabiltzen diren mailegu batzuk gorde ere egin ditugu euskara batuazkoetan esangura galdu ze dadin. Azkenik, ulerkuntza errazteko ohar batzuk egin baditugu ere, erakusle eta aditzondoei dagokienez, behinik behin, ezin euskara batuaz topatu izan dugu A– aurrizkia gehitzen dutenentzako ordainik, hots, bizkaieraren barietate askotan erakusle eta aditzondo arrunt, indartu eta berrindartuez ostera bada intentsiboen laugarren serie bat; esate baterako:

hori	horixe	berori	áori/áuri
hemen	hementxe	berton	ámen
horra	horraxe	bertora	áorra/áurra

Hau salbuespena izanda, osterantzeko kasu gehienetan, uste dugu ezen, euskalkia eta standarraren arteko jauzia ez dela zertan izanik zenbaitek uste gainako handia¹.

Gizabidea da hemen biltzen diren testuak nork eman dituen adieraztea, denei nire eskerrik bihozkorrenak ematen dizkiedala: Carmen Fernández, Begoña Landabaso, Amaia Goenaga, Libe Goenaga, Sabin Eiguren eta Koro Agote.

1. AMALAU LAPUR

«Amalau lapur on sile ta aberas baten etxera sartu sile, ta karo! bat ixaten sala txikitxuena, korridxen txartuen itxen bana ta karo! danak eskapa bela ta a txikidxe atrapa ben, t´ordun in tzoen, orrek aberatzak miñe ebai, orreri txikidxeri, da gero karo! arek berbarik esiñ ixabales iñ, beran lagunekañe dxuteko:

- Mirla, mirla, mirla! – itxen bala berba, d´ordun esan ben arek:
- Ene! millasak ei datos gure atzien – eurek beste lapurrek:
- Millasa tatos gure atzien.»

(A. Goenaga)

«Hamalau lapur egon zirela eta aberats baten etxera sartu zirela, eta jakina! bat izaten zela txikitxoena, korrika txartoen egiten zuena eta jakina! denek eskapatu zutela eta txiki hura harrapatu zuten, eta orduan egin zioten, aberats ho-

1. Elantxobeko euskarari buruz Gaminde, I. (1985): “Elantxobeko Euskara” in FLV-45, 95-167 or. Nafarroako Gobernua, Iruñea. Gaminde, I. (1994): “Elantxobeko Azentuaz” in ELE-14, 7-42 or. AEK, Bilbo.

rrek mihia ebaki, txiki horri, eta gero jakina! hark berbarik ezin izan zuenez egin beraren lagunengana joateko:

- Mirla, mirla, mirla! – egiten zuela berba, eta orduan esan zuten haiek:
- Ene! milazak ei datoz gure atzean – eurek beste lapurrek:
- Milazak datoz gure atzean».

2. JUAN OTXO

«Juan Otxona san orixe, sekuestra i ban, Juan Otxon ama, sekuestra ban serak, orrek, sorgiñek, kuebara barrure, dxadxo san kueban, Juan Otxo, orraitxik esaten tzoen uli euko letxik gorpus gustidxen Juan Otxo esaten tzoen, inyarra euko letxik, inyarra, amari esan i tzon e:

– Nik au e, altzako neke ba! – gosi eta, amak esan ei tzon:

– Txo! itxixu ondiño gastu sara, lau urte dekosu te. – urtik aurrerantza, aproba in eidxeban da:

– Ama, nik altza itxen dopa!

– Egon geldi ba! – bera morroye falta danin e, bera demoniñu falta danin, arridxe, losi goidxen tapaten, alako baten esan ei tzon amari, dxun sanin da tardaten ban denpori, esan ei tzon e:

– Nik e...– baya orretako, lenango ara, pentzaten dot etorri sile, a salbaten, Juan Otxon ama salbaten etorri sin, da arek iten tzoen, orrek demoniñu orrek kristalesko espati euki ban brillanti da garbitxu tzusen gixon bi edo iru, arek salbaten erritxik etorrineko jenti, emon kristalesku ta apurtu berak burdiñaskuas in tzusen, da Juan Otxok e, esan tzonin amari esan tzon e, dxun sanin e, ta berak altza tzon losi te amak eta orrek eskapa, da amak bakidxeles erridxe nun dauen ba errire, da gero a etorri sanin arrapadak itxe basen ba, Juan Otxo, otzue les ulikas etorri san, ules beteta, Juan Otxo orrexeaitxik esaten tzoen areri, gero prepara ben pisti moduen da gero segiten tzon, baya desixena sekule kentzen espadatzu, baya inyartzu ei san demasakua, erridxetati ixan sin piñuk ataraten, piñuk ataraten, da batek auri te bestik auri te bera be eskus ataraten piñuk, ori estala biarra piñuk atarateko, ta piñuk atarateko ta piñuk atarateko ba, inyarra eskuas! atxur barik eta ebai barik atara piñuk, da gero arrankapinosi e, etorri datzon Juan Otxo, eseukon serik eta ba, dxun bi ben beste leko batera da orrek laurek eskapa ben andik, laurek eskapa ben an be, jigante bate tekola sertute, ori sekuestrata, beste erregiña baten alaba bat eukon sekuestrata, da itxe ban iñok ostu barik besun dekola lo, orrek jigantiorrek, d'arek laurek ixan sin, bat ixan san apuntador, besti ixen san asmador, pentzaten bana nois dxun, lo nois topate ban an, besti ixan san apuntador da besti ajustador, ba ostu tzun arek, dxun san ori pentzador da lapur fin, da pentzadorrek esa ban:

– Dxuan lo dau te, lo dau te.

Gero dxun sanien billurre lapur fiñek, akordaten bada satitxuko tzun orrek jiganti orrek, da bestik esaban:

– Dxuen da kendu, kendu besuen lo dau. – dxuen da artun umi te amen dakarre enbri, neskatxu besun, bestik:

– Ene! erreparaten batzu danak ilgo gaitxu te.– sartu enbarkasiñun, d'es-kapa ben, eskapa ben, baya akorda san e, ta enbri falta danin besuen:

– Ene koño! enbarkasiñu falta dot! – ta ikusi tzon d'an dator enbarkasiñuaiñe, ba bueno, esan tzon apuntadoreri:

– Su listo apuntateko. – egas itxe ban jigantik, amen dator aidian da abioyen modun dxo ban olantxik, dxo ban apuntadorik, da guardabajoka, enbarkasiñure, dxo ban enbarkasiñue ta andidxe saletxik apurtu ban enbarkasiñua, ta oin be itxo in bir danak, da gero se in ban ajustadorrak ? ri, ra, ra, ra! amarra banda, trinka banda ta salba sin, ta gero laurek euki ben peni batak berak in daula apunta, bestik berak ostu daula, berak bestik pentza daula, danak drogie, danak drogie euki ben, danak drogi euki ben, baya batak arraso-ye euki ban:

– Nik pentza espanaban suk esin su ostu. – ta:

– Nik ostu espanaban. – da:

– Nik aidin il espanaban.– da bestik:

– Nik espanaban ajusta enbarkasiñu danok itxoko geñin. – gero errire dxun sin, da erridxen in ben euren arreglu selan ixan bisan, ta nik estakit bateri, gero ama bateri be konta bixan tzoen, se danak euki ben diskusiñu te».

(Sabin Eiguren)²

«Juan Otxorena zen horixe, bahitu egin zuen, Juan Otxoren ama, bahitu zuen zerak, sorginak, kobara barrura, jaio zen koban, Juan Otxo, horregatik esaten zioten ilea zeukanez gorputz osoan Juan Otxo esaten zioten, indarra zeukanez, indarra, amari esan ei zion e:

– Nik hau e, altxatuko neuke ba! – gosea eta, amak esan ei zion:

– Txo! uztazu ondino gaztea zara, lau urte daukazu eta. – urteak aurrerantza, aproba in ei zuen eta:

– Ama, nik altxatu egiten dut ba!

– Egon geldi ba! – bera morroia falta denean e, bera demoninoa falta denean, harria, harlauza goian tapatzen, halako baten esan ei zion amari, joan zenean eta tardatzen zuen denbora, esan ei zion e:

– Nik e...– baina horretarako, lehenago hara, pentsatzen dut etorri zirela, hura salbatzen, Juan Otxoren ama salbatzen etorri ziren, eta haiek egiten zioten, demonino horrek kristalezko ezpata euki zuen dizdiranta eta garbitu zituen gizon bi edo hiru, haiek salbatzera herritik etorritako jendea, eman kristalezkoa eta apurtu berak burdinezkoagaz egin zituen, eta Juan Otxok e, esan zionean amari esan zion e, joan zenean e, eta berak altxatu zion harlauza eta amak eta horrek eskapatu, eta amak bazekienez herria non dagoen ba herrira, eta gero hura etorri zenean harrapadak egiten zituen ba, Juan Otxo, otsoa lege-gez ileakaz etorri zen, ilez beteta, Juan Otxo horrexegatik esaten zioten hari, gero prestatu zuten pizti moduan eta gero segitzen zion, baina desizena sekula kentzen ez bazaizu, baina indartsua ei zen demasakoa, herrietatik izan ziren pinuak ateratzen, pinuak ateratzen, eta batek hori eta besteak hori eta bera ere eskuz ateratzen pinuak, hori ez dela beharra pinuak ateratzeko, eta pinuak ateratzeko eta pinuak ateratzeko ba, indarra eskuz! aitzur barik eta ebaki barik atera pinuak, eta gero arrankapinosi e, etorri zitzaion Juan Otxo, ez zeukan zerik eta ba, joan behar zuten beste leku batera eta horiek laurek eskapatu zuten handik, laurek eskapatu zuten han ere, erraldoi batek daukala zertuta, hori bahituta, beste erregina baten alaba bat zeukan bahituta, eta egiten zuen inork ohostu barik besoan daukala lo, erraldoi horrek, eta haiek laurak izan ziren, bat izan zen apuntador, bestea izan zen asmador, pentsatzen zuena noiz joan, lo noiz topatzen zuen han, bestea izan zen apuntador eta bestea ajustador, ba ohostu zizun hark, joan zen hori pentzador eta lapur fin, eta pentzadorrek esan zuen:

2. Testu honetan badirudi ezen ipuin bi nahasten direla; hala eta guztiz, kantatu zitzaigun eran ematen dugu.

- Joan lo dago eta, lo dago eta.
- Gero joan zenean bildurra lapur finak, itxartzen bada zatituko zizun horrek erraldoi horrek, eta besteak esan zuen:
- Joan eta kendu, kendu besoan lo dago. – joan da eta hartu umea eta hemen dakarte emakumea, neskatxoa besoan, besteak:
- Ene! erreparatzen badizu denak hilgo gaitu eta – sartu ontzian, eta eskapatu zuten, eskapatu zuten, baina itxartu zen e, eta emakumea falta denean besoan:
- Ene koño! ontzia falta dut! – eta ikusi zion eta han dator ontziagana, ba bene, esan zion apuntadoreri:
- Zu listo apuntatzeko. – hegaz egiten zuen erraldoiak, hemen dator aidean eta abioiaren moduan jo zuen holantxe, jo zuen apuntadoreak eta beheraka, ontzira, jo zuen ontzia eta handia zenez apurtu zuen ontzia, eta orain ere ito egin behar denak, eta gero zer egin zuen ajustadorrak? ri, ra, ra, ra! lotu banda, trinkatu banda eta salbatu ziren, eta gero laurek euki zuten pena batak berak egin duela apuntatu, besteak berak ohostu duela, berak besteak pentsatu duela, denek droga, denek droga euki zuten, denek droga euki zuten, baina batek arrazoia euki zuen:
- Nik pentsatu ez banuen zuk ezin duzu ohostu – eta:
- Nik ohostu ez banuen. – eta:
- Nik aidean hil ez banuen – eta besteak:
- Nik ez banuen ajustatu ontzia denok itoko ginen. – gero herrira joan ziren, eta herrian egin zuten euren konponketa zelan izan behar zen, eta nik ez dakit bati, gero ama bati ere kontatu behar izan zioten, ze denek euki zuten eztabaida».

3. PERU TA MARIDXE

«Peru te Maridxe, Anton da txoridxe, lapikotxu baten, dxantxu txikidxe»

(L. Goenaga)

«Peru eta Maria, Anton eta txoria, lapikotxo baten, jantxo txikia».

«Peruk e ... Maridxek esantzola Peruri ba, erreire dxun bidabela ba, errekaduk eitxen, ta euki ei dxeben barrille sagardauas barrille aundidxe, laban ogidxek eitxen eta txakurrek listo ixena, d'orra! Peruri etor dxakon ganie sagardae edateko, da se in tzu? kendu tapoye da edan sagardue, da gero tapoye esin topa, tapoye esin topa banen listori deitxu te liston bustana sartun, an, sarratuteko baya areri astu dxakon an nun itxi daben, gero seusetako listo ona esan tzon, da listok urteban andik da sagardau gustidxe korridute, Maridxe etorri te, berak ser in eidxeban? ogidxek laban on disenak danak posutan bota, ta Maridxek esan tzon, a:

– Peru su esara iñun itxiteko gero, su esara iñun itxiteko, ikusten sus sertzuk biarrak istasusen? sagardau barrille utzitxu, ogi gustidxek or – in tzon – bueno, oin bakixu ser ingun, asike guasen ametik, guasen ametik nunura dxun bigu te, ta ekarri ori atiori onantz.

Bestik ser in tzu? atara atie ta imiñi lepun atie, ta korri, Maridxe aurretik eta Peru atzetik, alako baten:

– Peru! basatos ta – beitzu – nora satos su ati lepun artunde ba?

– Suk estasu esan onantz ekarteko?

– Bai, ati onantz itxitzeko es lepun ekarteko.

Da idxo i dxeben gabes arbola batera, d'an on sin euren, ati be goidxen arbolan, d'alako baten lapurrek, lapurrek etorri ei sin da lapurrek diruk esin

kontata antxe, diruk kontaten, diruk kontaten da bestik koitxaduk, txakur txikiri pes ta, areri, diruk kontaten, botaten tzoe ati, eskapaten dabe lapurrek danak eurentzako diruk, da bueltan etorri».

(C. Fernández)

«Peruk e... Mariak esan ziola Peruri ba, herrira joan behar dutela ba, mandatuak egitera, eta euki ei zuten kupela sagardauagaz kupel handia, labean ogiak egiten eta txakurrak Listo izena, eta horra! Peruri etorri zitzaion gogoa sagardaua edateko, eta zer egin dizu? kendu zapotza eta edan sagardaua, eta gero zapotza ezin topatu, zapotza ezin topatu zuenean Listori deitu eta Listoren buztana sartu, han, ixteko baina hari ahaztu zitzaion han non utzi duen, gero zerozertarako Listo hona esan zion, eta Listok irten zuen handik eta sagardau guztia korrituta, Maria etorri eta, berak zer egin ei zuen? ogiak labean egon direnak denak putzutan bota, eta Mariak esan zion, a:

– Peru zu ez zara inon uzteko gero, zu ez zara inon uzteko, ikusten dituzu zertzuk beharrak egin dizkidazun? sagardau kupela hustu, ogi guztiak hor – egin zion – beno, orain badakizu zer egingo dugun, halandaze goazen hemendik, goazen hemendik nonora joan behar dugu eta, eta ekarri ate hori honantz.

Besteak zer egin dizu? atera atea eta ipini lepoan atea, eta korritu, Maria aurretik eta Peru atzetik, halako baten:

– Peru! bazatoz ta – begiratu – nora zatoz zu atea lepoan artuta ba?

– Zuk ez didazu esan honantz ekartzeko?

– Bai, atea honantz ixteko ez lepoan ekartzeko.

Eta igon ei zuten gauez arbola batera, eta han egon ziren euren atea ere goian arbolan, eta halako baten lapurrak, lapurrak etorri ei ziren eta lapurrak diruak ezin kontatuta hantxe, diruak kontatzen, diruak kontatzen eta besteak koitaduak, txakur txikirik ere ez eta, haiei, diruak kontatzen, botatzen diote atea, eskapatzen dute lapurrek denek eurentzat diruak, eta bueltan etorri».

«Ixen san Peru, ori dirune selan da? amen dator Maridxe ixen sanin e, abadik emon bixen tzosen Peruri basterrak diro, abadik, erriko abade batek, da estaki pa sen ganin ixen san diruk emon bixen tzosen abadik, diruk emon bixen tzosen abadik Peruri, ta arek diruk kontaten deuen artin esan tzon e, Peruk, kandeli bistu ban monagilluk, da monagilluk euki ban kandeli abadik diruk konta artin eperdidxen, da orreri monagilluri eperdi gustidxe erre in datzon da etor san Maridxe, Perun andri, ba elixara, beluko mesara ba gua-pa arekin dirukin de, elegante dxantzitxe, da or egon san abadi ba sermoye itxen, da diño abadiak e:

– Amen dator Maridxe ederrik eta galantik.– da monagilluk altaratik:

– Nik enabales eukin dirorik nire eperdidxek ondo pagadis.

Karo! areri diru emon tzon abadik baya monagilluk espales eukin, kandeli eperdidxen eukin biar diruk konta artin».

(L. Goenaga)

«Izan zen Peru, hori diruarena zelan da? hemen dator Maria izan zenean e, abadeak eman behar izan zizkion Peruri bazterrak diru, abadeak, herriko abade batek, eta ez dakit ba zeren gainean izan zen diruak eman behar izan zizkion abadeak, diruak eman behar izan zizkion abadeak Peruri, eta diru haiek kontatzen dituen artean esan zion e, Peruk, kandela biztu zuen monagilluk, eta monagilluk euki zuen kandela abadeak diruak kontatu artean ipurdian, eta monagillu horri ipurdi osoa erre egin zitzaion eta etorri zen Maria, Peru-

ren andrea, ba elizara, beluko mezara ba guaparik diru haiekin eta, dotore jantzita, eta hor egon zen abadea ba sermoia egiten, eta dino abadeak e:
 – Hemen dator Maria ederrik eta galantik – eta monagiluak altaratik:
 – Nik ez nuenez euki dirurik nire ipurdiak ondo pagatu ditu.
 Jakina! hari dirua eman zion abadeak baina monagiluak ez zuenez euki, kandela ipurdian euki behar diruak kontatu artean».

«Beste baten be, estaipa selan ixen san tellaturi idxo ban e, Peruk, esta? Peru ixen san, da Maridxe, antxiñe onek su bajuk oten sin, su bajuk oten sin, da esaten tzon se Peruk, Maridxe, es estudiantik ixen sin estudiantik, Peru ill in san, ill in san Peru, d'ordun estudiantik ba, pilluk ixeten siles len oingo moduen, ba esan tzoen bakixu ser ingusen gaur gabas e, serin, idxo ingus e, tellature ta tximiñitxik ingotzegu Maridxeri berba, Peru garisela ta, da in tzoen ori iru lau estudiantek, ta karo! bekosuek ixeten sin antxiñe, da goitxik e, deitxuten tzoen:

- Maridxe, Maridxe! – ta:
- Ser? nor sara? – diñotzo Maridxek ta:
- Ni? ni Peru – da:
- Peru! – de:
- Bai – ta:
- Ser gurosu ba Peru ta? – da:
- Nik gose andidxe dekot.
- Gosi? ba nun botako tzu pa ta? – da – nun botako tzu pa dxateku?
- Neu tekot amen sakue serin de.

Txikotas amarrata botate tzoen tximiñitxik sorrue, ta arek bete dxatekuas ta gora idxon da bueno:

- Ta oin ser gusu Peru bata? – ba:
- Dirue.
- Dirue? – da:
- Bai.

Da bota tzon e, sera, ta bete tzon sorrue diruas ta altza ben gora, da gero esan tzoen:

- Maridxe, oin banoye – da:
- Selanik? arpeitxu erakutzi be in barik soyos ba?
- Ointxen erakutziko tzut.

Ser i ben? aurpeidxe imiñi biarrin popi imiñi ben estudiantik tximiñidxen, da esan tzoen:

- Peru! orixe da surre lusi ta aurpeidxe baltza!»

(A. Goenaga)

«Beste baten ere, ez dakit ba zelan izan zen teilaturi igon zuen e, Peruk, ezta? Peru izan zen, eta Maria, aintzina su baxu hauek egoten ziren, su baxuak egoten ziren, eta esaten zion ze Peruk, Maria, ez ikasleak izan ziren ikasleak, Peri hil egin zen, hil egin zen Peru, eta orduan ikasleak ba, pikaroak izaten zirenez lehen oraingo moduan, ba esan zioten badakizu zer egingo dugun gaur gaez e, zerean, igon egingo dugu e, teilatura eta, tximiniatik egingo diogu Mariari berba, Peru garela eta, eta egin zioten hori hiru lau ikaslek, eta jakina! behekosuak izaten ziren aintzina, eta goitik e, deitzen zioten:

- Maria, Maria! – eta:
- Zer? nor zara? – dinotso Mariak eta:
- Ni? ni Peru – eta:

- Peru! – eta:
- Bai – eta
- Zer gura duzu ba Peru eta? – eta:
- Nik gose handia daukat.
- Gosea? ba non botako dizut ba eta? – eta – non botako dizut ba jatekoa?
- Neuk daukat hemen zakua zerean eta.
- Txikotaz lotuta botatzen zioten tximiniatik zorroa, eta hark bete jatekoz eta gora igon eta beno:
- Eta orain zer gura duzu Peru bada? – ba:
- Dirua.
- Dirua? – eta:
- Bai.
- Eta bota zion e, zera, eta bete zion zorroa diruz eta altxatu zuten gora, eta gero esan zioten:
- Maria, orain banoa. – eta:
- Zelanik? aurpegia erakutsi ere egin barik zoaz ba?
- Oraintxe erakutsiko dizut.
- Zer egin zuten? aurpegia ipini beharrean popa ipini zuten ikasleek tximinian, eta esan zien:
- Peru! horixe da sudur luzea eta aurpegia beltza!»

«Nik estaitx, beste baten, sopak e, sillu iñ amen da umiri sopak sartun tzosela Peruk, ixen sin ba bidxek e, inorantexuk ixaten danak eta umi euki bela da, umik gitxi dxate bala da Peruk esan eitzon Maridxeri ba dxan be ereiñ in bi datzo, da orrotzas sillu iñ, amumak kontaten tzusenak, burun sillu iñ orrotzas ta andik sartun sopak, kafe koletxe sopak».

(L. Goenaga)

«Nik ez dakit, beste baten, zopak e, zuloa egin hemen eta umeari zopak sartu zizkiola Peruk, izan ziren ba biak e, inuzentetxoak izaten direnak eta umea euki zutela eta, umeak gutxi jaten zuela eta Peruk esan ei zion Mariari ba jan ere eragin egin behar zaio, eta orrotzaz zuloa egin, amomak kontatzen zituenak, buruan zuloa egin orrotzaz eta handik sartu zopak, kafesne zopak».

4. SIERPI SASPI BURUKUNE

«Sierpi saspí burukune, antxiñe bixi sien, gixona ta andri te iru seme ixen sien arrantzalik, dxun sin itxosora arrañetan, atrapa ben arrain bat eta saldu:

– Arraño saldu in bigu te.– ta gero bigarrenin be atrapa ben bigarren arraño, irugarrenak esan tzon e:

– Arrain bi falta dire gure kuadrillakuk eta. – irugarrena, eta bera botateko itxosora, libre itxitzeko, ta esan tzon olantxik esan tzon:

– Ni botaten banosu itxosora e, emongo tzut suerte bat, emon tzon suertie, kortan imintzeko aren asurrek, beste lengo arrañoenak kortan imintzeko, gero urten tzon, iru karakol, iru txakur de iru espata, iru semintzako, da dxun sin, gero arek, karakol batek emon tzon kapritxua arrantzari, itxi ben arrantzan dxuti, da emon tzon e, arek arrantzan dxun barik, mundu errekorriten dxuti, diru arrañoek sartu beles asko, lelengo bidxekas, mundu errekorriten, dxun sin mundu errekorriten, da topa ben, alako baten dxun sin bide batetik, iru bide, andra sartxu bat dxesarritxe, izan san, eseben dxakiñ eurek eta, Amabirjiñi, emon tzoen:

– Nora soyese? – ta:

- Mundu errekorriten. – da:
- Eser badarusu? – te:
- Es. – ba:
- Erun in bisue. – esan tzoen ba:
- Ser erun bida ba? – ta:
- Neuk emongo tzute. – emon tzoen iru pitxote, emon tzoen ur bedein-
katuas da esan tzoen se:
- Beitxu, anaidxa bat txarto badabil sueri bidxori asiko datzues pitxotak
irikitxen, irikitxen, badakixu anaidxa bat peligrun deuna, ba onek ondo deu-
sen artien ondo soyese.– dxun san bide batetik bat eta besti bestetik eta bes-
ti bestetik, dxun sin eta alako baten e, eldu san bat erri batera ta dana sarati
te dana sarati te:
- Ser pasaten da emen erridxen ba? – esa ban, sarrenak eta sarrena on san
an esan tzon se:
- Amen urten tzo suertien, erregin alabiri dxateko, egunin bat dxan bi
deu sierpik eta, ain kamiñotan ain kilometrotan bajatu amen, sierpik dxan bi
deu te – suspentzun gelditxu san barbari pe esiñ eidxeban in te, ser i dxeban?
buelta, da bera dxun, an topa eidxeban e, erregin alabi, ta esan tzon:
- Ser itxen su amen ba ta? – ba:
- Niri suertien urten dost ba, amentxe nau dxateko, amaiketan etorten
da sierpi, eta sierpik dxateko – esan tzon e, mutillek:
- Nai basu idxon, idxon kaballoana. – dxuan kaballoana da, alako baten
atzetik txistuk dxoten sien, txakurreri esan tzon, Doba eukon txakurrek ixen-
na, txakurreri esan tzon se:
- Suk ingosu, sierpi datorrenin buro nagositxik agarra, ta agarraten bat-
zasu buro nagositxik esin deu bestikas maniobrarik ein – etorri sanin dxoten,
miñe, amorro gustidxas sierpi dxaten danak aragidxen kontra, txakurre euki
ban berak preparata, grak! agarra tzon burotik, burotik agarra in tzonin, in
tzon salta berak eta matxetaas gra, gra! buruk ebai ta askaneko txakurreri eser
in barik buro nagosidxe ebai in tzon, bueno, aparta san erregin alabi ixilik,
salbatute egon neskie, ikusi banin ganin esan ei tzon orretako peligru daola
ta dxuteko naiku dala bera bakarrik, danak dxango tzusela ta saspri buro de-
kosela ta, arek etxin dxaki ban, berak erregen alabik dxantzi basen arek saspri
gona luse, saspri gonari krak! leko batetik saspri satiten, gero in tzon orrek sas-
pri burori saspri miñek kendu, iñok esaban dxakiñ arek ser in daun da ser iñ
estaun, alako baten, andre, andre, andre!, sarati, sarati, saratie!, beste egunien
prepara bi ban bodi ba, orrek e, erridxen egon san a, ser batek e, orrek, san-
tar batek, olan bate batera olanik ibiltxen dana traperu modun da serin, ar-
tun buro danak eta berak erun erregiri bera sala ta esan sera, erregen alabi, da
erregen alabik esan tzon e, erregen alabi pe esetz, arek estaula salba, da aitze
pe esku artu ban besterik es:
- Arexe takas buruk, arexek ebai tzos buruk eta.
- Eses ba, ni enau salba orrek, beste bate paño, d'es orrek, txakurrek eta
kaballoanik nun dauni pe, olan dala ixan da aberidxe ta. – esaten tzon, esku
artu banin de berak morroyek bayetz berak in yaula da bueno, bodie, bodie,
baya neskik esaban gure ixan esetara be, alako baten on sin bodan dxaten da,
txakurreri esan tzon:
- Doba, badakixu sein neska dan, esta? dxun bigarren platera ona, artun
txakurrek aguen da an doye, ostabe denporatxuen an bigarren serbitzen dxun

sin ostabe, ekarri bigarren platera, ta neskik bapere dxan barik, aitxe ta beste morroye kexu, txakur sinberguensi! biridxa egon bidala ta, an doyes gixonak dxagoten da, kallue! dxun sen txakurre beran plateras, baja san neski te esan tzon:

– Au de ni salba nauena, es auri, au de, ta mosukas esan, berari.

– Bueno, ikusi in bide, eta ia se detalle emoten sun – esan tzon ak kabalukuri, baya gusurre bada, eta neskiri gusta badatzo, a mutille gastu san da, aren aldin de bi da moduku te, da esan in tzon e:

– Bueno, badeu karniserorik erridxen?

– Bai, ensegida! – erregik – ensegida ta fulano karniseru de ta – etorri te:

– Errekonosidu orrek buruk. – saspí min, ebaitxe:

– Ia onek badire orrako miñek?

– Onexe ti.

– Oin sastri ba erridxen ikusi. – sastrie etorri sanin e:

– Ia orrek gonatan selan dausen ikusi – saspí gona sartu sin.

– Auxe da – ointxe erregi konforma san egidxe dana, erun euren morroye plasara ta afusilla, da gero bera gelditxu san orras, da oten ei san mendidxen sorgin bat, itxe basena ser danak e, inutisa edo kati imiñi, uli te juntateko ta, esan tzon olan ba, etxetik, kuatuko bentanatik:

– An mendidxen ser dau ba? – esan tzon orrek mutil orrek, gixon orrek, erregin alabinek eta:

– Orra es dxuan jangoikuaixik, gora dxuten disen danak traga itxen tzus, sorgin ba teu te.

– Ikusi in bio pa! – monta kaballo ganin dxun in san da, txakurreri esan ei tzon e:

– Imiñi suletxu au, kaballori bai?. – da an darusku, barrabana!, bueno, bestik, bakixu, beste anaidxak e, alan esan tzoen da pitxoti irikitxen, dxo ta su, dxo ta su, dxo ta su, irikitxen da alako baten, batek eru ban, pitxoti bera, pitxoti bera, da:

– Auxe, amentxe bidin ixan san. – da andri arin be gora begire, gora begire doyela, igualak ei sin mutille pe, kaballu pe igualak, txakurre pe igualak, danak igualak eta neskik errepara tzon, sarata in tzon bentanatik:

– Sasoi su etorteko! – ta berak tontune in dau gero bestik, anaidxi dxuen, da pitxoti ondo, dxun andriañe ta esan ei tzon, berbari pesaban in, dxan da bi da modun einde ta listo! gero etorri san areri bardin, da esan ei tzon:

– Dxun sara ba mutil – ta beste mutillek garbitxu arek, irugarrenak pitxoti irikitxen dekola etxin, artu an beñipein bidi angue, geruau te urriau te gero, ta iru anaidxak amentxe di, dxun in san da irugarrena be:

– Gaur be dxun ingo sara su te etor saix etxera ta kittu! gero dxungo sara mendire. – esan in tzon – se estakit senbat egunin falta ixen sara. – berak esan bes, bera dani pe, anaidxik, dxun sanin atzuk esan tzon:

– Imiñi au suletxu.

– Sulerik es, aunas matxetaas emongotzut nik suri. – dxo ban eskuetan, matxetaas in tzonin beorrek:

– T'atara anaidxak eta or dausenak barruen. – atara tzon lenango baten erremintxak gero bestinek:

– Atara beste enparuk – txakurrek esetz:

– Txakurre pe atara ortixik, kaballu pe atara ortixik eta anaidxa pe ortixik atara. – da atara tzosen beran a, danak, urte benin an deus formata ta, ta egune, falta, falta sera, ta neskiek, alako baten ikusi sitxuen:

– E! bat, bi, iru. – irurek igualak

– Selan da au ba? – tontaute, ta eldu sin etxera ta:

– Oin serera dxun bidu – esan ei tzon beran, lenangokuk eta:

– Nik e, seuok esan bikosue nor sarien edo ser? danok sarie igualak, selan da au ba? – ta, neskie tontaute egon san, danak kaballuk igualak, txakurrek igualak, danak igualak, da bestik esan ei tzon se:

– Neu nas lenangoku, auxe ta auxe pasa dxasku, or suk esan sun tokidxen da anaidxak, onek salba gaitxus danok. – esan ei tzon orrek, ia selako inpuñe tiresen orrek, gero dxun sin, gero dxun sin mutillek a, gelditxu an, da dxun sin e, beran amaiñe ta ser pasa datzosen gustidzek, konta tzoen ser pasa datzoen eureri, ta arexek Amabirjiñek emon tzoen pitxoti bidin, iru bide-tan dxuteko mutillek, arexek emon tzoen bidi gero alkarren, alkartuteko».

(Sabin Eiguren)

«Sierpea zazpi burukoarena, aintzina bizi ziren, gizona eta andrea eta hiru seme izan ziren arrantzaleak, joan ziren itsasora arrainetan, harrapatu zuten arrain bat eta saldu:

– Arraina saldu egin behar dugu eta – eta gero bigarrean ere harrapatu zuten bigarren arraina, hirugarrenak esan zion e:

– Arrain bi falta dira gure taldekoak eta. – hirugarrena, eta bera botatzeko itsasora, libre uzteko, eta esan zion honela esan zion:

– Ni botatzen banauzu itsasora e, emango dizut zorte bat, eman zion zortea, kortan ipintzeko haien hezurak, beste lehenengo arrainenak kortan ipintzeko, gero irten zion, hiru karakol, hiru txakur eta hiru ezpata, hiru semeentzat, eta joan ziren, gero hark, karakol batek eman zion apeta arrantzari, utzi zuten arrantzan joatea, eta eman zion e, haiek arrantzan joan barik, mundua korritzen joatea, dirua arrainak zertu zuenez asko, lehenengo biakaz, mundua korritzen, joan ziren mundua korritzen, eta topatu zuten, halako baten joan ziren bide batetik, hiru bide, andra zahartxo bat jezarrita, izan zen, ez zuten jakin eurek eta, Amabirjina, eman zien:

– Nora zoazte? – eta:

– Mundua korritzen – eta:

– Ezer badaroazue? – eta:

– Ez. – ba:

– Eroan egin behar duzue. – esan zien ba:

– Zer eroan behar da ba? – eta:

– Nik emango dizuet.– eman zien hiru pitxota, eman zien ur bedeinkatuagaz eta esan zien ze:

– Begiratu, anaia bat txarto badabil zuei biori hasiko zaizkizue pitxotak irakiten, irakiten, badakizu anaia bat arriskuan dagoena, ba hauek ondo dagoen artean ondo zoazte.– joan zen bide batetik bat eta bestea bestetik eta bestea bestetik, joan ziren eta halako baten e, heldu zen bat herri batera eta dena zarata eta dena zarata eta:

– Zer pasatzen da herri honetan ba? esan zuen, zaharrenak eta zaharrena egon zen han esan zion ze:

– Hemen irten dio zortean, erregearen alabari jateko, egunean bat jan behar du sierpeak eta, hain kaminotan hain kilometrotan baxatu hemen, sierpeak jan behar du eta.– durdiduta gelditu zen berbarik ere ezin ei zuen egin eta, zer egin ei zuen? buelta, eta behera joan han topatu ei zuen e, erregearen alaba, eta esan zion:

– Zer egiten duzu hemen ba ta? – ba:

- Niri zortean irten dit ba, hementxe nago jateko, hamaiketan etortzen da sierpea, eta sierpeak jateko. – esan zion e, mutilak:
- Nahi baduzu igon, igon zaldiagana. – joan zaldiagana eta, halako baten atzetik txistuak jotzen ziren, txakurrari esan zion, Doba zeukan txakurrak ize-na, txakurrari esan zion ze:
- Zuk egingo duzu, sierpea datorrenean buru nagusitik heldu, eta heltzen badiozu buru nagusitik ezin du besteakaz maniobrarik egin. – etorri zenean jotzen, miha, amurru osoz sierpea jatera denak haragiaren kontra, txakurra euki zuen berak prest, grak! heldu zion burutik, burutik heldu egin zionean, egin zion saltatu berak eta matxetez gra, gra! buruak ebaki eta azkenerako txakurrari ezer egin barik buru nagusia ebaki egin zion, beno, apartatu zen erregearen alaba ixilik, salbatuta zegoen neska, ikusi zuenean gainean esan ei zion horretarako arriskua dagoela eta joateko nahikoa dela bera bakarrik, denak jango zituela eta zazpi buru dauzkala eta, hark etxean jakin zuen, berak erregearen alabak jantzi zituen hark zazpi gona luze, zazpi gonari krak! leku bate-tik zazpi zatitan, gero egin zion zazpi buru horiei zazpi mihiak kendu, inork ez zuen jakin hark zer egin duen eta zer egin ez duen, halako baten, aldra, aldra, aldra! zarata, zarata, zarata!, beste egunean prestatu behar zuen ezkontza ba, horrek e, herrian egon zen a, zer batek e, horrek, zantar batek, holan no-nora holan ibiltzen dena traperu moduan eta zerean, hartu buru denak eta berak eroan erregeari bera zela eta esan zera, erregearen alaba, eta erregearen alabak esan zion e, erregearen alabak ere ezetz, hark ez duela salbatu, eta aitak ere eskua hartu zuen besterik ez:
- Harexek dakartza buruak, harexek ebaki dizkio buruak eta.
- Ezetz ba, ni ez nau salbatu horrek, beste batek baino, eta ez horrek, txakurrak eta zaldiazenik non dagoenik ere, holan dela izan da gorabehera eta. – esaten zion, eskua hartu zuenean eta berak morroiak baietz berak egin duela eta beno, ezkontza, ezkontza, baina neskak ez zuen gura izan ezertara ere, halako baten egon ziren ezkontzan jaten eta, txakurrari esan zion:
- Doba, badakizu zein neska den, ezta? joan bigarren platera hona, hartu txakurrak ahoan eta han doa, osterabe denboratxoan han bigarren zerbitzatzera joan ziren osterabe, ekarri bigarren platera, eta neskak bat ere jan barik, aita eta beste morroia kexu, txakur lotzabakoa! biria egon behar dela eta, han doaz gizonak jagoten eta, ka! joan zen txakurra beraren plateragaz, baxatu zen neska eta esan zion:
- Hau da ni salbatu nauena, ez hori, hau da, eta mosuakaz esan, berari.
- Beno, ikusi egin behar da, eta ea zer xehetasun ematen duzun. – esan zion hark zaldikoari, baina gezurra bada, eta neskari gustatu bazaio, mutil hura gaztea zen eta, haren aldean eta behar den modukoa eta, eta esan egin zion e:
- Beno, badago harakinik herrian?
- Bai, atoan! – erregeak – atoan eta urlia harakina da eta – etorri eta:
- Errekonozitu buru horiek. – zazpi mihi ebakita:
- Ea hauek diren horrako mihiak?
- Hauexek dira
- Orain jostuna ba herrian ikusi.– jostuna etorri zenean e:
- Ea horiek gonetan zelan dagozen ikusi – zazpi gona sartu ziren.
- Hauxe da. – oraintxe erregea konformatu zen egia dena, eroan zuten morroia plazara eta afusilatu, eta gero bera gelditu zen horregaz, eta egoten ei zen mendian sorgin bat, egiten zituena zer denak e, hipnotizatu edo katea ipini, ilea eta batzeko eta, esan zion holan ba, etxetik, logelako leihotik:
- Mendi hartan zer dago ba? – esan zion mutil horrek, gizon horrek, erregearen alabarenak eta:
- Horra ez joan Jangoikoagatik, gora joaten diren denak irentsi egiten ditu, sorgin bat dago eta.
- Ikusi egin behar dut ba! – igon zaldi gainean joan egin zen eta, txakurrari esan ei zion e:
- Ipin zuratxu hau, zaldiari bai?. – eta han daroakigu, barrabana!, beno, besteak, badakizu, beste anaiak e, halan esan zien eta pitxota irakiten, jo eta su,

jo eta su, jo eta su, irakiten eta halako baten, batek eroan zuen, pitxota behe-
ra, pitxota beheera, pitxota beheera, eta:

– Hauxe, hementxe bidean izan zen. – eta andrea arin ere gora begira, gora
begira doala, berdinak ei ziren mutilak ere, zaldiak ere berdinak, txakurrak ere
berdinak, denak berdinak eta neskak errepara zion, zarata egin zion leihotik:

– Sasoa duzu etortzeko! – eta berak inuzentearena egin du gero besteak, anaia
joan, eta pitxota ondo, joan andreagana eta esan ei zion, berbarik ere ez zuen
egin, jan eta behar den moduan eginda eta listo! gero etorri zen hari berdin,
eta esan ei zion:

– Joan zara ba mutil – eta beste mutilak garbitu haiek, hirugarrenak pitxota
irakiten daukala etxean, hartu han behinik behin bidea han doa, geroago eta
hurbilago eta gero, eta hiru anaiak hementxe dira, joan egin zen hirugarrena
ere:

– Gaur ere joan egingo zara zu eta etor zaitez etxera eta kitu! gero joango za-
ra mendira. – esan egin zion – ze ez dakit zenbat egunean falta izan zara. –
berak esan ere ez, bera denik ere, anaiak, joan zenean atsoak esan zion:

– Ipini zura hau.

– Zurarik ez, matxeta honegaz emango dizut nik zuri. – jo zuen eskuetan,
matxetaz egin zionean berorrek:

– Eta atera anaiak eta hor dagozenak barruan – atera zizkion lehenago baten
erremintak gero bestearenak:

– Atera beste enparauak – txakurrak ezetz:

– Txakurrak ere atera hortxetik, zaldiak ere atera hortxetik eta anaiak ere
hortxetik atera. – eta atera zizkion beraren a, denak, irten zutenean han da-
goz formatuta eta, eta eguna, falta, falta zera, eta neskak, halako baten ikusi
zituen:

– E! bat, bi, hiru. – hirurak berdinak.

– Zelan da hau ba? – durdituta, eta heldu ziren etxera eta:

– Orain zerera joan behar dugu – esan ei zion beraren, lehenagokoak eta:

– Nik e, zuok esan beharko duzue nor zareten edo zer? denok zarete berdi-
nak, zelan da hau ba? – eta, neska durdiduta egon zen, denak zaldiak bardi-
nak, txakurrak bardinak, denak bardinak, eta besteak esan ei zion ze:

– Neu naiz lehenagokoa, hauxe eta hauxe pasatu zaigu, hor zuk esan duzun
tokian eta anaiak, honek salbatu gaitu denok. – esan ei zion horrek, ea zela-
ko ipuinak diren horiek, gero joan ziren, gero joan ziren mutilak a, gelditu
han, eta joan ziren e, beraren amagana eta zer pasatu zitzaien guztiak, konta-
tu zioten zer pasatu zitzaien eurei, eta harexek Amabirjinak eman zien pitxo-
ta bidean, hiru bideetan joateko mutilak, harexek eman zien bidea gero elka-
rren, elkartzeko».

5. SASPI AUSKUMA

«Ba... ixan san, saspi, saspi auskuma euki tzusen auntsaldi baten, saspi
kuma euki tzusen da dxute san konprak itxen bera ta, arek an on sin da esan
tzoen:

– Estosue edeingo aterik iñori bes gero, iñori bes se aseridxe dabill ortik
eta – aseridxe edo lobu edo, ixan sala ta:

– Es ama estotzu edeingo iñori aterik guk.

Ta etor san, dxo tzoen ati da:

– Nor da ta? – bakixu aman bos suabe ta arena gogorra ta:

– Sueneko ama.

– Gure ama esara su, gure amak esteko olako abotzik eta su esara gure
ama.

Dxun san, ostabe dxo ban ati te, estakit semat arraultza dxan tzusen ga-
llinero baten bosa finyuteko, ta ostabe dxo ban ati te:

– Nor da ta?
 – Sueneko ama – da:
 – Erakutzi a patie – ta patie baltza ba:
 – Su esara gure ama gure amak pata suridxe deko baltza barik eta
 Dxun san atzera, sartun san e, errotara dxun de kaixan, ta etor dxatzu su-
 ri suri einde, da tan-tan da:

– Nor sara?
 – Sueneko ama.

Ikusi pati te ati edein tzue, txikidxena sartun san erlojun beste gustidzek
 dxan tzusen, traga tzusen, gero ama etorri te enei! lo on i san e, serin erra-
 didxun ondun on san lo, ta in i tzon, in i tzon amak artasidxeekin iñ ebai tri-
 pie, ta danak bixirik salta ta a tripie arris bete, da arridxes bete sanin dxosi-
 txe egarridxe etorri dxun e, edaten ure da pisuas, blus! barrure ta bertan itxo».

(C. Fernández)

«Ba... izan zen, zazpi, zazpi ahunzkume euki zituen ahuntzaldi baten, zazpi
 kume euki zituen eta joaten zen erosketak egitera bera eta, haiek han egon zi-
 ren eta esan zien:

– Ez duzue irekiko aterik inori ere ez gero, inori ere ez ze azeria dabil hortik
 eta – azeria edo otsoa edo, izan zela eta:

– Ez ama ez diogu irekiko inori aterik guk.

Eta etorri zen, jo zien atea eta:

– Nor da eta? – badakizu amaren ahotsa suabea eta harena gogorra eta:

– Zueneko ama.

– Gure ama ez zara zu, gure amak ez dauka horrelako ahotsik eta zu ez zara
 gure ama.

Joan zen, osterabe jo zuen atea eta, ez dakit zenbat arraultza jan zituen oilo-
 toki baten ahotsa fintzeko, eta osterabe jo zue atea eta:

– Nor da eta?

– Zueneko ama – eta:

– Erakutsi a hanka – eta hanka beltza ba:

– Zu ez zara gure ama gure amak hanka zuria dauka beltza barik eta.

Joan zen atzera, sartu zen e, errotara joan eta kaxan, eta etorri zaizu zuri-zuri
 eginda, eta tan-tan eta:

– Nor zara?

– Zueneko ama.

Ikusi hanka eta atea ireki dizute, txikiena sartu zen erlojuan beste guztiak jan
 zituen, irentsi zituen, gero ama etorri eta enei! lo egon ei zen e, zerean irra-
 tiaren ondoan egon zen lo, eta egin ei zion, egin ei zion amak artaziekin egin
 ebaki tripa, eta denak bizirik saltatu eta tripa hura harriz bete, eta harriz bete
 zenean josita egarria etorri joan e, edatera ura eta pisuagaz, blus! barrura eta
 bertan ito.

6. GARBANSITONA

«Garbansitona ba, ixen san txiki txikitxue, garbantzotxue, da amak esan
 tzon e, dxuteko dxateku eruten ba aitxeri, lanin deuela ta mendire, da topa
 tzun bidin ba txal bat, txaltxu bat, da esan tzola se:

– Garbansito!

Bueno Kukumitxu ero esaten dau gure Mari Lekeitxiokuk, guk erderas
 ba Garbansito, entzu notzon nik baya, da:

– Nora soyes ba? – da:

- Ni aitxaaiñe, dxateku eruten – da:
- Emongostasu apur bat? – da:
- Es

Esan ei tzon, esetz esan tzonin, ba orrek txaltxu orrek iñ i ban ba traga Garbansito oso osorik beran dxateko ta gusti, gero ba, ibilli datzon e, arrebaxu bera bille, bera bille, da esan i tzon e:

– Dxun seix e, Kukumitxu bille – Kukumitxu de euskera politxoau dena:

- Kukumitxu! – te entzun bes:
- Kukumitxu! – te entzun bes, gero txalan ondora dxun sanin, da:
- Ame neu!
- Nun seus ba?
- Txalaren, txalaren tripan – da:
- Noix etorriko sara ba? noix urtengo su orti pa? – ba:
- Txalak kaka asko asko itxen deuenin urtengot – d'aur!, txalori egarri in san da dxun i san ba, erreka bat ondure, da ure eran da eran da, arrebaxuk in tzon saka atzetik, da bota txala uretara ta tripik errementa in tzon da Kukumitxuk urten i ban ba kakas beterik».

(L. Goenaga)

«Garbantzitorea ba, izan zen txiki txikitxo, garbantzotxo, eta amak esan zion e, joateko jatekoa eroatera ba aitari, lanean dagoela eta mendira, eta topatu zizun bidean ba txahal bat, txahaltxo bat, eta esan ziola ze:

– Garbantzito!

Beno Kukumitxu edo esaten du gure Mari Lekeitiokoak, guk erdaraz ba Garbansito, entzun nion nik baina, eta:

- Nora zoaz ba? – eta:
- Ni aitarengana, jatekoa eroatera – eta:
- Emango didazu apur bat? – eta:
- Ez

Esan ei zion, ezetz esan zionean, ba txahaltxo horrek egin ei zuen ba irentsi Garbantzito oso osorik beraren jateko eta guzti, gero ba, ibili zitzaion e, arrebaxoa bera bila, bera bila, eta esan ei zion e:

- Joan zaitez e, Kukumitxu bila – Kukumitxu da euskaraz politagoa dena:
- Kukumitxu! – eta entzun ere ez:
- Kukumitxu! – eta entzun ere ez, gero txahalaren ondora joan zenean, eta:
- Amen nago!
- Non zagoz ba?
- Txahalaren, txahalaren tripan – eta:
- Noiz etorriko zara ba? noiz irtengo duzu hortik ba? – ba:
- Txahalak kaka asko egiten duenean irtengo dut – eta hara hor! txahal hori egarri egin zen eta joan ei zen ba, erreka bat ondora, eta ura edan eta edan eta, arrebaxoak egin zion sakatu atzetik, eta bota txahala uretara eta tripak errementatu egin zion eta Kukumitxuk irten ei zuen ba kakaz beterik».

7. ANBOTOKO SEÑORA

«Gure amak esate ban, emen neskatilla eder bat ixen sala, ta estakit ser i ban neskiorek maldesiño emon tzola, bota tzola amak, da kueba baten bixiten sala beti euskitxen oten sala beran ulli orrostuten, da kustiñu de se edoid-xek olan pasaten sinin:

- An doye Anbotoko señoiri, an doye!»

(C. Fernández)

«Gure amak esaten zuen, hemen neskatila eder bat izan zela eta ez dakit zer egin zuen neska horrek madarikazio eman ziola, bota ziola amak, eta koba baten bizitzen zela beti eguzkitan egoten zela beraren ilea orrazten, eta kuestioa da ezen hodeiak holan pasatzen zirenean:

– Han doa Anbotoko andrea, han doa!»

«Anbotoko Señorine ori esaten gu, ontxe les e, euridxe edo ekarteko bada, Anbotoko Señori negarres deu de laster da euridxe».

(B. Landabaso)

«Anbotoko andrearena hori esaten dugu oraintxe legez e, euria edo ekartzeko bada, Anbotoko Andrea negarrez dago eta laster da euria».

8. ARIMENAK

«Arimanak eta gure amak kontate tzusen, gure amak esate ban, baya pasanikotzat kontate ban, amen e, oiñ e, Juanan ta onen, bixi disen lekun goidxen bixi sin Juanita ... estakit nor ixate san, apellidu etxat akordaten oiñ, eta beran ama alargune bera ume txikidxe itxosun itxo in dxakon areri, da itxen tzusen ba sarik eta, puntuk eta, errekadun bota oñes Gernikara antxiñe, ta antxiñe metro barik, kani ixaten i san, kani, da au e, Freskaustiñenekuri bentani inde, oin bentani in dabe Adonisek eta, baya ori ixate san kuartobentana osu berarteku, ta lorak eta gero imiñikuk da esan i tzon amari se:

– E! itxaon amen se astu in dxat preguntati semat kana ekarri doten.

Da alako baten e, ikusten ei deu taberna euki gendun lekotik ortik portaletik, fraka suridxeekin da dxake baltzas da sonbreruas gixon bat pasa ta elixan, elixako atin galdu, elixako atin desaparesidu, gure amak in ei dxeban garrasidxe! esan ei dxeban:

– Gure neska gangarra kontaixu dxausi de.

Esan ei dxeban beran amak, ama Paskalak, ta agarrata orrexeri, serari, kuartobentaniri agarrata:

– Ai ama! ai ama!

– Ser dakana ba? ser pasa da?

Pasa gure es andik elixati pa, dxuteko bide barrire bera esetz da orrek eskillarak, ortixik in ei dxueu buelti, bueltan etor sinin Gernikatik, Filipinaren il dala, il barridxe on sala ortxe, da saspí mutill anaidxak edo ixan i sin, da bueltan etorri sinin Gernikatik il barridxe angoxe mutille da, ta berak ori beti kontate ban amak, beti kontate ban amak ori».

(C. Fernández)

«Arimenak eta gure amak kontatzen zituen, gure amak esaten zuen, baina pasatutakotzat kontatzen zuen, hemen e, orain e, Juanaren eta hauen, bizi diren lekuan goian bizi ziren Juanita... ez dakit nor izaten zen, abizena ez zait gogoratzen orain, eta beraren ama alarguna bera ume txikia itsasoan ito egin zitzaion hari, eta egiten zituen ba sareak eta, puntuak eta, errekaduan bota oinez Gernikara antzina, eta antzina metro barik, kana izaten ei zen, kana, eta hau e, Freskaustiñenekoari leihoa eginda, orain leihoa egin dute Adonisek eta,

baina hori izaten zen kontraleiho osoa beherainokoa, eta loreak eta gero ipi-
nitakoak eta esan ei zion amari ze:

– El itxaron hemen ze ahaztu egin zait itauntzea zenbat kana ekarri dudan.
Eta halako baten e, ikusten ei du taberna euki genuen lekutik hortik etarte-
tik, praka zuriekin eta jaka beltzagaz eta kapelagaz gizon bat pasatu eta elizan,
elizako atean galdu, elizako atean desagertu, gure amak egin ei zuen garrasial
esan ei zuen:

– Gure neska gangarra segurasko jausi da.

Esan ei zuen beraren amak, ama Paskalak, eta oratuta horrexeri, serari, kon-
traleihoari oratuta:

– Ai ama! ai ama!

– Zer dakarren ba! zer pasatu da?

Pasatu gura ez handik elizatik ba, joateko bide berrira bera ezetz eta eskilara
horiek, hortixik egin ei zuten buelta, bueltan etorri zirenean Gernikatik, Fili-
pinetan hil dela, hil berria egon zela hortxe, eta zazpi mutil anaiak edo izan ei
ziren, eta bueltan etorri zirenean Gernikatik hil berria hangoxe mutila da, eta
berak hori beti kontatzen zuen amak, beti kontatzen zuen amak hori».

«Gixonak itxosora dxuten sinin be, dana ixete san gusurre, txispatxuas ote
sin de gero ikusi itxen ben doble kontaixu, dxo ostikuas ba sera, ollarra ta
personan formi, sorgiñek eta, amumak kontaten ban, etorri itxosora txoko-
lukin klin-klan, klin-klan len etorten sin modun e, goxaldien, da ollarra to-
pa or talayan edo, da ollarrak ainke edo esin solta, esin solta dxo ostikuas da
aulako defuntu aundi bet presenta».

(A. Goenaga)

«Gizonak itsasora joaten zirenean ere, dena izaten zen gezurra, txolinduta
egoten ziren eta gero ikusi egiten zuten bikoitz segurasko, jo ostikoaz ba ze-
ra, oilarra eta pertsonaren forma, sorginak eta, amomak kontatzen zuen, eto-
rri itsasora txokoloekin klin-klan, klin-klan lehen etortzen ziren moduan e,
goizaldean, eta oilarra topatu hor talaian edo, eta oilarrak haginka edo ezin
solatu, ezin solatatu jo ostikoaz eta hara halako defuntu handi bat agertu».

«Baya esaten dabe, goixaldi arimantzat ixaten dala ta gure amumak kon-
tate ban e, amen txorrotxun, txorru deu or, ta ama guri txiki txikitxue, da
amuma karo! alargundu sales otamairu urteas, lau seme alaba txikitxu pa, gu-
re ixeko dxadxota gure amak eukin tzusen ba, saspi urte, aitxe il datzonin, ba
mantarrak goixaldin e, dxoten ortxen txorrun, baya orduri pes, erlojori pes,
se ordu dan be dxakin bes, da an on i san gure ama amumari lagunten, be-
ran amari lagunduten mantarrak dxo artin eskiñatxun, parata, da alakun ba-
ten iñ ei tzon gure amak ara! baldara salto, ta:

– Ser umie?

– Ama prosesiñu dator erresaten kaltzadan bera.

Asike berak umik e, esan ban kaltzada bete jente datorrela:

Santa Maridxa

Jangoikoaren ama

erregutu egixu

da orrexek erresaten datorrela prosesiñu ta baldara barrure salto gure
amak saspi urtetxuas, beran amari gure amumari, iñ ebasen erropa danak ba-
tun, itxi deuena deueles, in bakuk in barik eta iñekuk te etxera etorri te goi-
keko ordu bidxek edo irurek ixen ei sin, ordori pes, ori amumak kontaten
doskun»

(L. Goenaga)

«Baina esaten dute, goizaldea arimentzat izaten dela eta gure amomak kontatzen zuen e, hemen iturrian iturria dago hor, eta ama gurea txiki txikia, eta amoma jakina! alargundu zenez hogeta hamahiru urtegaz, lau seme alaba txikitxuak ba, gure izeko jaiota gure amak euki zituen ba, zazpi urte, aita hil zitzaionean, ba mantarrak goizaldean e, josten hortxe iturrian, baina ordurik ere ez, elojurik ere ez, ze ordu den ere jakin ere ez, eta han egon eizen gure ama amomari laguntzen, beraren amari laguntzen mantarrak jo bitartean eskinatxoan paratuta, eta halako baten egin eizion gure amak haral baldera saltu eta:

– Zer umea?

– Ama prozesinoa dator erregutzen kaltzadan behera.

Halandaze berak umeak e, esan zuen kaltzada bete jende datorrela:

Santa Maria

Jangoikoaren ama

erregutu egizu

Eta horiexek erregutzen datorrela prozesinoa eta baldera barrura saltu gure amak zazpi urtetxogaz, beraren amari gure amomari, egin zituen erropa guztiak batu, utzi dagoena dagoela, egonbakoak egin barik eta eginekoak eta etxera etorri eta goizeko ordu biak edo hirurak izan eiziren, ordurik ere ez, hori amomak kontatzen zigun».

«Beti urteten eizion beste bateri amen e, motorran estakitx nor itxonekue, erremun sarati beti entzuten ban, da an ikusten eizion ban eskillaran anaidxi ero, etxeko arima bat, buruko txotu te gusti».

(L. Goenaga)

«Beti irteten eizion beste bati hemen e, motorran ez dakit nor itotakoa, arraunen zarata beti entzuten zuen, eta han ikusten eizion eskilaran anaia edo, etxeko arima bat, buruko kapela eta guzti».

«Aren aitxe, aren aitxe ala atxitxe, estakitx, Sabiñen atxitxe ixengo san, arek ixen sin! amumak selan eukin ban bestik ixena? emen bixi sanak? a etorten san kanposantun asitxe tanborra dxoten tarrantan, tarrantan:

“altzateko itxosora dxuteko”

Ori ixeten san ordu:

“altzateko itxosora dxuteko”

Goixaldin an goitxik asitxe tanborra dxoten, da gero karo! asko erdi lo deuen ba, tanborreru ikusi ingo ban, arimak, neu pe bai, erdi lo baseus, de dxan barik eta olan baseus tanborreru an dator».

(B. Landabaso)

«Haren aita, haren aita ala aitita, ez dakit, Sabinen aitita izango zen, haiek izan ziren! amomak zelan euki zuen besteak izena? hemen bizi zenak? hura etortzen zen hilerrian hasita danborra jotzen tarrantan, tarrantan:

‘altzateko itsasora joateko’

Hori izaten zen ordua:

‘altzateko itsasora joateko’

Goizaldean han goitik hasita danborra jotzen eta gero jakina! asko erdi lo dagoena ba, danborraria ikusi egingo zuen, arimak neuk ere bai, erdi lo bazagoz, eta jan barik eta holan bazagoz danborraria han dator!

«Sorgiñek enei! Elantxoben oten sin naiku sorgiñek, sorgiñ erridxe esate ben da».

(L. Goenaga)

«Sorginak enei! Elantxoben egoten ziren nahikoa sorginak, sorgin herria esaten zuten eta».

9. ABADEAREN AMA SORGINA

«Esate ban beste ba pe abade batek euki bala ama sorgiñe ta nonok esan tzola..., dxuten ei san mesatara abadin e, mesi entzuten, beran semin mesi entzuten dxuten sala, ta jenti sorgiñe dala ta, sorgiñe dala ta, bera pe esaten ei dxeban, esan tzoenin, esi leidxe ixen ori, baya itxiten baban ebanjelidxu sabalik esiñ urten ixate ban elixatik e, sorgiñe ixaten sanak esiñ urten, ta entzun bales ori beran ama sorgiñe dala, se in tzu?³ ebanjelidxu sabalik itxi, ta dxun bera, ta an, etxera esin dxun, esiñ urten, da:

- Ama, ser itxen su etxera etor barik?
- Ixu mesedi a sarratuti.

Esan tzon abadiri amak, abadiri esan tzon, osea ebanjelidxu itxi bales sabalik, esiñ urten ixan ban elixatik amak sorgiñe ixan salako».

(C. Fernández)

«Esaten zuen beste bat ere, abade batek eduki zuela ama sorgina eta norbaitek esan ziola ..., joaten ei zen mezatara abadearen e, meza entzutera, beraren semearen meza entzutera joaten zela, eta jentea sorgina dela eta, sorgina dela eta, berak ere esaten ei zuen, esan ziotenean, ezin liteke izan hori, baina uzten bazuen ebanjelioa zabalik ezin irten izaten zuen elizatik e, sorgina izaten zenak ezin irten, eta entzun zuen legez hori beraren ama sorgina dela, zer egin dizu? ebanjelioa zabalik utzi, eta joan bera, eta han, etxera ezin joan, ezin irten, eta:

- Ama, zer egiten duzu etxera etorri barik?
- Egizu mesedea hura zerratzea.

Esan zion abadeari amak, abadeari esan zion, hau da ebanjelioa utzi zuenez zabalik, ezin irten izan zuen elizatik amak sorgina izan zelako».

10. ELANTXOBEKO SORGINA

«Ta beste baten be beste bat esate ban andra bat on sala sorgiñe, da goixin goistik dxun sanin itxosora gixon batek e, ikusi bala sorgiñori bertako, bertako Elantxobeko sorgiñe, esan i tzon:

- Estosu esango ni amen ikusi nosunik, se esaten basu galdu ingo satxut. Eta bestik sorgiñe ikusi dabela bai baya nun ixan dan eseuen esan gure».

(C. Fernández)

3. Datiboaren bidez entzulea narrazioaren barruan sartzekotan dagokion pertsona barik 'zu' askotan erabiltzen da.

«Eta beste baten ere beste bat esaten zuen andre bat egon zela sorgina, eta goizean goiztik joan zenean itsasora gizon batek e, ikusi zuela sorgin hori bertako, bertako Elantxobeko sorgina, esan ei zion:

– Ez duzu esango ni hemen ikusi nauzunik, ze esaten baduzu galdu egingo zaitut.

Eta besteak sorgina ikusi duela bai baina non izan den ez zuen esan gura».

11. KUBARA JOATEN ZEN SORGINA

«Beste bat kontate ban sorgiñek, antxiñe sorgiñek asko ta, andra batek esaten ei dxeban Kubara dxun dala, gixon baten serin, txalupan, selan esate ban? selan esate ban ganera? ‘cada palada cien leguas’, da Kubara dxun de bueltan etorte sala, ixilik egon saix, nok siñestuko tzu suri txe? egun baten selan ekarri ban, pentzaixu ariñ ariñ, ‘cada palada cien leguas’ dxuten sala Kubara».

(C. Fernández)

«Beste bat kontatzen zuen sorginak, aintzina sorginak asko eta, andra batek esaten ei zuen Cuba-ra joan dela, gizon baten zerean, txalupan, zelan esaten zuen? zelan esaten zuen gainera? ‘cada palada cien leguas’, eta Cuba-ra joan eta bueltan etortzen zela, ixilik egon zaitez norik sinestuko dizu zuri eta? egun baten zelan ekarri zuen, pentsa ezazu arin arin, ‘cada palada cien leguas’ joaten zela Cuba-ra».

OGOÑO KO LAMIÑA

«Beste bat esate ban, beste bat kontate ban, lamiñak on sin amen Ogoñon, selako urtitako gausak!, lamiñak ote sin, lamiñi seri esate tzoen? bertan basun asinekuk edo dxadxo edo asinekuk edo, kuebatan edo, ba olakoxe seuser, d’an e, oiñ e, Karmen da bixi disen lekun, Karmen, an beyen bixi ixan da ixena esate ban berak andrine, da on i san, sotzin imintxe, txorixu erreten eta etorri i dxakon lamiñi eta, barie, palun berak, ta bari imiñi:

– Suk koipetzu te nik akatzu, suk koipetzu te nik akatzu.

Da alako baten e, ernega erain tzonin, ser in tzon andrik?, burruntxidxe begitxik sartun, orretarako esan i tzon lelengo:

– Selan dekosu suk ixena?

– Nik neuk

Da arek andrik nik neuk, da dxun i san lamiñiori etxera, ta se:

– Nok in tzu ba?

– Nik neuk

– Euk in te euk osatu iñe!

Nok in tzu te nik neuk se nik neuk esan tzon ixena ta, suk koipetzu te nik akatzu, da ernega erain tzon da bestik burruntxidxe sartun begitxik, da negarres dxun sanin da nok in tzu te nik neuk, euk in te euk osatu iñe».

(C. Fernández)

«Beste bat esaten zuen, beste bat kontatzen zuen, laminak egon ziren hemen Ogoñon, zelako urteetako gauzak!, laminak egoten ziren, lamina zeri esaten zioten? bertan basoan hazitakoak edo jaiio edo hazitakoak edo, kobetan edo, ba holakoxe zerozer, eta han e, orain e, Karmen eta bizi diren lekuan, Kar-

men, han behean bizi izan da izena esaten zuen berak andrearena, eta egon ei zen, zotzean ipinita, txorizoa erretzen eta etorri ei zitzaion lamina eta, kima, makilean berak, eta kimatxo ipini:

– Zuk koipetsua eta nik akatsua, zuk koipetsua eta nik akatsua.

Eta halako baten e, ernega eragin zionean, zer egin zion andreak? burruntxia begitik sartu, horretarako esan ei zion lehenengo:

– Zelan daukazu zuk izena?

– Nik neuk.

Eta andra hark nik neuk, eta joan ei zen lamina hori etxera, eta ze:

– Nork egin dizu ba?

– Nik neuk.

– Heuk egin eta heuk osa ezan!

Nork egin dizu eta nik neuk ze nik neuk esan zion izena eta, zuk koipetsu eta nik akatsu, eta ernega eragin zion eta besteak burruntxia sartu begitik, eta negarez joan zenean eta nork egin dizu eta nik neuk, heuk egin eta heuk osa ezan».

12. SUGEAK

«Aldea baten esate ben pasa sala bularra geru te gitxiau, geru te gitxiau eukitxen ei dxeban andrik bularra, batebategen bota saidxe edo bidin, ta subi nundik pasa san markie, eitxen i tzon lo dauela edan titidxe ta umintzako es ei dxakon gelditxuten, bustena aguen areri te berak edan selako malesidxe e! selako txarra e! demoniñu dala esaten dabe ta bai ixan be!

(C. Fernández)

«Baserri baten esaten zuten pasatu zela bularra gero eta gutxiago, gero eta gutxiago eukitzen ei zuen andreak bularra, baten batek bota zahia edo bidean, eta subea nondik pasatu zen marka, egiten ei zion lo dagoela edan ditia eta umearentzat ez ei zitzaion gelditzen, buztana ahoan hari eta berak edan zelako malezia e! zelako txarra e! demoninoa dela esaten dute eta bai izan ere!».

«Neskatilla gaste bat, ba, neskatilla formala ta ixan ei san, ta geru te tripe andidxau te geru te tripe andidxau te sabaldu sala, ba selan deuen enbarasada, da berak eses da berak eses da berak esetz, da gixon batek in bala galdara andi bet imiñi esni irikiten, se ya esnin usiñe dala, da olantxik urten ei tzon subik, ta bera itxo in san, aixe esni edaten, da ixan sala ure edan basotik erreidxun edo nunun artun de kumaren bat traga ban d'antxe asi dxakola, ixa leikes orrek gausak, ori be entzuneku de, entzun i naban nik, te diño se neski geru te, ta bera koitxadi formal formala, ta geru te tripe andidxau klaro!, subi semata andidxau tripi andidxaue».

(C. Fernández)

«Neskatilla gazte bat, ba, neskatilla formala eta izan ei zen, eta gero eta tripa handiagoa eta gero eta tripa handiagoa eta zabaldu zela, ba zelan dagoen seindun, eta berak ezetz eta berak ezetz eta berak ezetz, eta gizon batek egin zuela galdara handi bat ipini esne irakiten, ze ja esnearen usaina dela, eta holantxe irten ei zion subeak, eta bera ito egin zen, esne huraxe edaten, eta izan zela ura edan basotik errekan edo nonon hartu eta kumaren bat irentsi zuen eta hantxe hazi zitzaioa, izan litezke gauza horiek, hori ere entzundakoa da, entzun egin nuen nik, eta dino ze neska gero eta, ta bera koitadua formal formala, eta gero eta tripa handiagoa jakina!, subea zenbat eta handiagoa tripa handiagoa».

13. ARTEAGAKO HILKETA

«Antxiñe pasaten sin gausa asko, tia Martzeliñak kontaten doskun guri, Artian, Artia ta Kortesubí, bakixu baserridxe otén dis, kilometro batera be igual baserri batetik bestera, da ixen ei sin koñata-koñatu, ba anaidxak esta? ero nebarrebak estakitx, ba bat baserri baten da bestin besti, da onek e, ne-bik dxakin ei ban arrebi doyena Bilbora, antxiñe dxuten sin goixaldin urte-ten ben emen txala saltzen, txala saltzen, da dxun ei sin alabatxuas, dxun ei san aitxe txala saltzen Bilbora, da karo! esan ei tzoen modun arrebiri nebig:

– Bai, bagoyes goistik urten bigus, ba Bilbora goyes txaltxu saltzen – da esan ei tzon e, berak aitxek neskatxuri:

– Lastana, eñ ondo diruk amarra gonan inperdiblias da sakotxun baten.

Da etorri sin da bidin urten tzoé, arpeidxe enkaputxauek, da in tzue ba, eskopetias, karo! aitxe tekolakun dirue aitxe ill, ordun dxun da andaran da le-lengo baserri etxie ba ixekune, aitxen arrebine:

– Ai tia! – antxiñe tia geidxau esate san igual ixeku baño ba. – urten dos-kue gixon bik, da aitxe il dabe, eskopetias il dabe, baya neu tekot dirue. – esan ei tzon da:

– Bueno lastana para lengusiñatxun ondun, da egon trankil tio dxungo da ta – bera neskatxu listi ero, ser i ban?

– Or puntatxun para.

Antxiñe argiri pesales egoten, puntan barik, ser i ban neskatxuk? bastar-rin para, bastarretik, d’etor datzu gixona, koñatu bera ixen san, nebi ill, di-ruaitxik, da esan tzon labi ingu berotu, da botakogus labara, ba erreten, ba artuntzue umie, au lelengo puntan deuen karo!, euren alabatxu, bestik iku-si banin umik ia ser in deuen, bakixu ser eukitxen tzuen orrek tejabanak e, sabaitxik eta, salta eta itxoten itxoten etxerarte eldu amanera, baya kargutu sinin euren alabi erre, eta koñatu ill, nebi il, dakidxela, dxun sin iltxen, da i ben neskatxu erre biarrin e, dirodune diru kentzeko euren alabi puntan ar-tun ben eta».

(L. Goenaga)

«Antzina pasatzen ziren gauza asko, izeko Martzelinak kontatzen zigun guri, Arteagan, Arteaga eta Kortezubi, badakizu baserriak egoten dira, kilometro batera ere beharbada baserri batetik bestera, eta izan ei ziren koinata-koinatu, ba anaiak ezta? edo nebarrebak ez dakit, ba bat baserri baten eta bestean bes-tea, eta honek e, nebak jakin ei zuen arreba doana Bilbora, antzina joaten zi-ren goizaldean irteten zuten hemen txala saltzera, txala saltzera, eta joan ei zi-ren alabatxoagaz, joan ei zen aita txala saltzera Bilbora, eta jakina! esan ei zio-nez arrebari nebak:

– Bai, bagoaz goiztik irten behar dugu, ba Bilbora goaz txaltxoa saltzera – eta esan ei zion e, berak aitak neskatxoari:

– Lastana, egin ondo diruak lotu gonan kateorrazaz eta zakutxoren baten. Eta etorri ziren eta bidean irten die, arpegia enkaputxatuak, eta egin dizute ba eskopetaz, jakina! aitak daukalakoan dirua aita hil, ordun joan da karrade-ran eta lehenengo baserri-etxea ba izekoarena, aitaren arrebarena:

– Ai tia! – antzina tia gehiago esaten zen beharbada izeko baino ba – irten di-gute gizon bik, eta aita hil dute, eskopetaz hil dute, baina neuk daukat dirua.

– esan ei zion eta:

– Beno lastana paratu lehengusinatxoaren ondoan, eta egon trankil tio joan-go da eta – bera neskatxoa azkarra edo, zer egin zuen?

– Hor puntatxoan paratu.

Antzina argirik ere ez zenez egoten, puntan barik, zer egin zuen neskatxoak? bazterrean paratu, bazterretik, eta etorri zaizu gizona koinatu bera izen zen, neba hil diruagatik, eta esan zion labea egingo dugu berotu, eta botako dugu labera, ba erretzera, ba hartu dizute umea, hau lehenengo puntan dagoena jakina! euren alabatxoa, besteak ikusi zuenean umeak ea ser egin duen, badakizu zer eukitzen dizuten horiek tejabanak e, sabaitik eta, saltatu eta itotzen, itotzen etxeraino heldu amanera, baina kargutu zenean euren alaba erre, eta koinatu hil, neba hil, dakiela, joan ziren hiltzera, eta egin zuten neskatxoa erre beharrean e, diruduna diru kentzeko euren alaba puntan hartu zuten eta».

14. SOLLO PATXERORENAK

«Sollo Patxero ta ixan bixaten sin famosuk, orrek Lekeitxion, baya gixonak normalak, baya eurek famosuk, karo! antxiñe miseria andidxe egote sales, ba arek eskondute bera da beste lagun bi eskondu, da, espen eukitxen umiri se dxan emon, karo! arrantzalik oingo modun atrapatzen baben baya espaben atrapatzen ba gosi, gosi ote san da, da karo! gabetan se itxe ben berak eta beste bik? serera dxute sin e, baserridxetara, lapurretan, ostuten ollaskuk, patatak, al daben gustidxe, da karo! urrengo egunin etorte sin baserritxarrak plasara, ta emengo moduko komentaridxuk:

– Enei! niri ostu dosti au. – da:

– Niri – beste batek – ostu dosti ori.

De serien, da, bueno olan ixate san gabe gustidxetan, itargidxe oten sainen, da esan ei ben, karo! aguasillek eta dxakitxe ben gutxi gora bera ba, amen erridxen dxakitxen da nor ibiltxen dan gabetan da:

– Keba! arexek ixan bi dabe derrior – da egun baten deitxu tzoen ayuntamienture, irurek bueno:

– Suek au te au te, aldianak suen sospetxi dekoa ta suek.

– Gu es.

Da sartun tzusien preso, baya karo! antxiñeko kartzelak ser ixaten sin? sartun tzusien aulako kamara batera, ayuntamientuko kamara batera, da karo! sartun tzusien an da ain ixaten sin e, se gure aitzek esate ban, intelijentik ixaten sin, da or kartzelan egon sin de arkaleri esaten ei tzoen, eurek esaten, pasaneku gause ti orrek gero!, da eurek esan ei tzoen bueno:

– Amen guk oin ser in bigus ba? ba, gaur karo! gaur gabas iñok esteu ostuko eser, gu emen geus de, da seoser in bigu.

– Ser ingu?

Ser iben? tellatu altza, da urten ben, bat gelditxu barrun da beste bik ostu tzusien al daben gustidxe, tellatotik urten da, entrega tzusien etxitara da sartun sin atzera bertara, kartzelara, da urrengo egunin aldianak e, serin:

– Enei! ostu tzusien, gaurko gabeku ixan da gogorrena! – eurek aldianak.

– Gaur ostu dabe sortzi ero bederatzi baserridxen e, ostu dabe.

Aguasillek urrengo egunin, bueno:

– Ordun arek estis e, arek estis lapurrek, arek esti lapurrek se kartzelan deus, irurek.

Da urrengo goixin lelengo orduen arek kanpora, etxera, asike lapurrek esin agertu nortzuk ixan sin de eurek etxera».

(A. Goenaga)

Sollo Patxero eta izan behar izaten ziren ospetsuak, horiek Lekeition, baina gizonak normalak, baina eurek ospetsuak, jakina! aintzina miseria handia egoten zenez, ba haiek ezkontuta bera eta beste lagun bi ezkontu, eta, ez zuten eukitzen umeei zer jaten eman, jakina! arrantzaleek oraingo moduan harrapatzen bazuten baina ez bazuten harrapatzen ba gosea, gosea egoten zen eta, eta jakina! gauetan zer egiten zuten berak eta beste bik? zerera joaten ziren e, baserrietara, lapurretan, ohostera oilaskoak, patatak, ahal duten guztia, eta jakina! hurrengo egunean etortzen ziren baserritarrak plazara, eta hemen-go moduko komentarioak:

– Enei! niri ohostu didate hau. – eta:

– Niri – beste batek – ohostu didate hori.

Eta zerean, eta, beno holan izaten zen gau guztietan, ilargia egoten zenean, eta esan ei zuten, jakina! aguazilek eta jakiten zuten gutxi gora behera ba, hemen herrian jakiten da nor ibiltzen den gauetan eta:

– Keba! haiek izan behar dute derrigor – eta egun baten deitu zieten udaletxera, hirurak beno:

– Zuek hau eta hau eta, baserritarrek zuen susmoa daukate eta zuek.

– Gu ez.

Eta sartu zituzten preso, baina jakina! aintzinako kartzelak zer izaten ziren? sartu zituzten holako kamara batera, udaletxeko kamara batera, eta jakina! sartu zituzten han eta hain izaten ziren e, ze gure aitak esaten zuen, zuhurrak izaten ziren, eta hor kartzelan egon ziren eta elkarri esaten ei zioten, eurek esaten, pasatutako gauzak dira horiek gero! eta eurek esan ei zioten beno:

– Hemen guk orain zer egin behar dugu ba? ba, gaur jakina! gaur gauetz inork ez du ohostuko ezer, gu hemen gagoz eta, eta zerozer egin behar dugu.

– Zer egingo dugu?

Zer egin zuten? teilatua altxatu, eta irten zuten, bat gelditu barruan eta beste bik ohostu zituzten ahal duten guztia, teilatutik irten eta, eman zituzten etxeetara eta sartu ziren atzera bertara, kartzelara, eta hurrengo egunean baserritarrak e, zerean:

– Enei! ohostu zituzten, gaurko gauekoa izan da gogorrena! – eurek baserritarrak.

– Gaur ohostu dute zortzi edo bederatzi baserrian e, ohostu dute.

Aguazilek hurrengo egunean, beno:

– Orduan haiek ez dira e, haiek ez dira lapurrak, haiek ez dira lapurrak ze kartzelan dagoz, hirurak.

Eta hurrengo goizean lehenengo orduan haiek kanpora, etxera, halandaze lapurrak ezin agertu nortzuk izan ziren eta eurek etxera.

«Da Sollo Patxero be, iban, gabarratan ibiltxe san da, Museletik andriri, esan tzon beste bateri se:

– Nire andri señi inde deu, d’au ollasku...

Ollo sarra, karo! saldi itxeko, Jijoyen ixen san, da esan tzon ia erungo batzozon mesedes ba, euren andriri Lekeitxiora au ollue, ollo sar andidxe, ba umi inde deuela, señi inde deuela ta saldi ta artzeko, d’aur! dxun da ekar tzus Sollo Patxerok olluori Lekeitxiora, da dana ixate sales Lekeitxion be beti musika lekun, beti plasan, bueno errifi deuela ollo baten errifi deuela, esotzon entrega andriri, da bueno andra gustidxe paraten ei sin korrund, da bueno errifie, baya errifi listu numeru estaki pa danari, andrineri imiñi urten bi tzona, berak emon tzon ollu emon tzon andriri emon tzon papela urten bi deuen, berak dxakin ban se marimoreni i ban an, or i ben errifie da urten tzo berari andriri olluek, etor sanin gixona, da:

– Ser andrie, Sollo Patxerok e, entrega tzun e, ollue? – da:

– Selako ollue? gixona! nik ori ollu plasan, errifan urten dosten olluk, ara! – esan tzon:

- Sollo Patxero, ser in su?
- A! beixu nik entrega notzon.– orraitxik Sollo Patxerona in dabe!»

(L. Goenaga)

«Eta Sollo Patxero ere, egin zuen, gabarretan ibiltzen zen eta, Museletik andreari, esan zion beste bateri ze:

– Nire andrea seina eginda dago, eta hau oilasko...

Oilo zaharra, jakina! salda egiteko, Gijonen izan zen, eta esan zion ea eroango zion mesedez ba, euren andreari Lekeitiora oilo hau, oilo zahar handia, ba umea eginda dagoela, seina eginda dagoela eta salda eta hartzeko, eta hara hor! joan da ekarri dizu Sollo Patxerok oilo hori Lekeitiora, eta dena izaten zenez Lekeition ere beti musika lekuan, beti plazan, beno zozketa dagoela oilo baten zozketa dagoela, ez zion eman andreari, eta beno andra guztiak paratzen ei ziren korroan, eta beno zozketa, baina zozketa zuhurra zerbakia ez dakit ba denei, andreari ipini irten behar ziona, berak eman zion oiloa eman zion andreari eman zion papera irten behar duena, berak jakin zuen ze marimorena egin zuen han, hori egin zuten zozketa eta irten dio berari andreari oiloak, etorri zenean gizona, eta:

– Zer andrea, Sollo Patxerok e, eman zizun e, oiloa? – eta:

– Zelako oiloa? gizona! nik oilo hori plazan, zozketan irten zidana oiloak, hara! – esan zion:

– Sollo Patxero, zer egin duzu ?

– A! begiratu nik eman nion – horregatik Sollo Patxerorena egin dute!».

«Karnabal, onek egunetan disfrasa, beti dxantzitze egun gustidxetan, da antxiñe atertatan andrak urtenda ta, danak dxantzitze, Sollo Patxero, da gure aitxe da kuadrilla gustidxe, da dxuten ei sin ba, ardautxu ero artun an da emoten alkarrerri te ba, dxesarri i sin prasuela baten, ainbeste andra eurekin barrekitxen da serin de, da danari emoten ardaue ta dxesarritxe gona sabal andidixas, makurtute, da bueno danak i besienin euren barriketak eta serak, bueno:

– Amen e, nor da erresponsable onena atertine? – esan i ban Sollo Patxerok eta andra batek esan i ban:

– Ba neu, neuri de aterti te.

– Ba onen erresponsable be in. – altza ta mokordo aundidxe bertan erdidxen keye daridxola itxi einde».

(L. Goenaga)

«Ihauteria, egun hauetan mozorratu, beti jantzita egun guztietan, eta aintzina etarteetan andrak irtenda eta, denak jantzita, Sollo Patxero, eta gure aita eta talde osoa, eta joaten ei ziren ba, ardautxoa edo hartu han eta ematen elkarri eta ba, jezarrri ei ziren larrain baten, hainbeste andra eurekin barrekitxen eta zerean eta, eta denei ematen ardaue eta jezarrita gona zabal handiagaz, makurtuta, eta beno denek egin zituztenean euren berriketak eta zerak, beno:

– Hemen e, nor da arduraduna etarte honena? – esan ei zuen Sollo Patxerok eta andra batek esan ei zuen:

– Ba neu, neurea da etarte eta.

– Ba honen arduradun ere egin. – altxatu eta mokordo handia bertan erdian kea dariola utzi eginda».

«Gero andik dxun plasara, ta paraten ei san ganera seridxo seridxo e! onek tronpoyek bakixu selan botaten dan? olan potxeras bota da atrapatzen eskun, da paraten ei san sabal sabal, dana agiridxen, da jente gustidxe sarataka ta ar-

peidxe tapaten beran mandangela gustidxe dingiliskan, baya arpeidxe es ei datzon ! gurin aitxe bera esaten da itxo itxe san barreska, baya arpeidxe Sollo Patxerori baya baya mobidu esta esta dani pes».

(L. Goenaga)

«Gero handik joan plazara, eta paratzen ei zen gainera serio serio e! hauek tronpoiak badakizu zelan botatzen den? holan lokarriz bota eta harrapatzen eskuan, eta paratzen ei zen zabal zabal, dena agirian, eta jende guztia zarataka eta aurpegia tapatzen beraren mandangela guztia dindilizka, baina aurpegia ez ei zitzaion! gurean aita bera esaten eta ito egiten zen barrezka, baina aurpegia Sollo Patxerori baina baina mugitu ezta ezta denik ere ez».

«Beste beñ amabi ero, bueno bastarrak, kuadrilla gusti danak kartzelara, kastañak lapurtan, Lekeitxion beti kartzelara, ayuntamientu sarrin, da pentza i ben:

– Guk amendik selan urtengus?

Andik orma bitxartetik pasa, ta an egon sin onek banda musikako ba, instrumental gustidzek, ba erretiranekuk eta:

– Da bai untxen formakus guk amen bandi!

Artun i basen platilluk batak eta bestik bonbu te, asi dis eskandalosu dxoten da beste erremedixorik es eben eukin atarati baño kanpora, filan filan bandi dxoten».

(L. Goenaga)

«Beste behin hamabi edo, beno bazterrak, talde osoa denak kartzelara, gaztainak lapurretan, Lekeition beti kartzelara, udaletxe zaharrea, eta pentsatu ei zuten:

– Guk hemendik zelan irtengo dugu?

Handik horma bitartetik pasatu, eta han egon ziren hauek musika bandako ba, instrumentu guztiak, ba kendutakoak eta:

– Eta bai oraintxe egingo dugu guk hemen banda!

Hartu ei zituen platiloak batak eta besteak bonboa eta, hasi dira ozenki jotzen eta beste erremediorik ez zuten euki ateratzea baino kanpora, iladan iladan banda jotzen».

«Ba bodegan egon ume umetatik biarrin gure aitxe ta, ba semat urteas? amar urte amaika, olan e, enplomaten dxuten sin beseuten, itxeben antxoba txikidxe, gatz emoneku, da ba, dxuten sin motorrak, ba kalara esaten dana, goixin ba bostetan dxun de gero besegue ta etorte sin paparduk eta, ba mutil txikidzek ote sin bodegan ba katilluk enplomaten, esate san, katillun amun imiñi antxobi te katillotxuk itxen, emoten tzoen kontaixu seosertxu arrañe ero etorten sinin motorrak eta, da beti etorten ei san, Lekeitxion popularra ixen da ta txurreidxe beti on da, ta txurreru etorten ei san beran txoto ta gusti ta amengo seraas, beti ba gure badabe serin, koitxaduk e, dirorik es txurruk dxateko ta, pentza i ben ba:

– Gaur guk amen e, gaur dxangus guk txurruk amen, beti inbididxi emoten deu baya, suék geldí egon e!

Amarra ben txikoa, potxera amarra ben atin ganera, arridxe puntan dala, aur! amen datortzu beran otzarias txurrerue:

– Auntxen, auntxen!

Erriaten dabe potxera da poun! otzarara arridxe, txurro gustidxe beyen ganin, txurreruk eskapa i ban, karo! arek ya esin ixen basen saldu de eurek sekulako txurruk dxan».

(L. Goenaga)

«Ba sotoan egon ume umetatik beharrea gure aita eta, ba zenbat urtegaz? hamar urte hamaika, holan e, enplomatzeraz joaten ziren besigutan, egiten zuten antxoba txikia, gatz emandakoa, eta ba, joaten ziren motorrak, ba kalara esaten dena, goizean ba bostetan joan eta gero besigua eta etortzen ziren papardoak eta, ba mutil txikiak egoten ziren sotoan ba katiluak enplomatzen, esaten zen, katiluaren amuan ipini antxoba eta katilutxoak egiten, ematen zieten beharbada zerozertxo arraina edo etortzen zirenean motorrak eta, eta beti etortzen ei zen, Lekeition popularra izan da eta txurreria beti egon da, eta txurreroa etortzen ei zen beraren txoto eta guzti eta hemengo zeragaz, beti ba gura badute zerean, koitaduak e, dirurik ez txurruak jateko eta, pentsatu ei zuten ba:

– Gaur guk hemen e, gaur jango ditugu guk txurruak hemen, beti bekaitza ematen du baina, zuek geldi egon e!

Lotu zuten txikoa, lokarria lotu zuten atearren gainera, harria puntan dela, harra hor! hemen datorkizu beraren otzaragaz txurreroa:

– Oraintxe, oraintxe!

Erriatzen dute lokarria eta poun! otzarara harria, txurru guztiak behearen gainean, txurreroak eskapatu egin zuen, jakina! haiek ja ezin izan zituen saldu eta eurek sekulako txurruak jan».

«Beste baten be bai, gastañatan dxun sin, gastañatan, orrek eureri pasaneke gause ti, da karo! beteta ya sera, sorruruk eta euren gastañakin, justu justun amen dator sera, dxabie, da ori Sollo Patxero, ori itzela ixaten ei san, arek e, karo! gurik eskapa ben, gure aitxe serin gelditxu engantxata, ule errisadu eukitxe bales, orrako sera, alanbradurie, serin, d'andik aspitzik sartzeko, ulie engantxa baya bestik libra ulik da aitxe safa san, da Sollo Patxerok se in tzon? arbolara idxon, bertara gastaña arbolara, da a goidxen da dxabi beyen, aula-ko makilla andi batas, dxabi beyen, da:

– Seu bajatuko sara! – ba:

– Ni bajatuko nas, kantzako sara seu be or egoten ni bajatu orduko.

Esaten ei tzon goitxik, arbolatik, baya ordutxo ixen ei sin e! orduten, da dxabi alakun baten arbolin eskiñan e, dxesarri te artu tzu erdi lo, saltaten tzo bestik arbola ganetik beran lepon ganera, da eskapa tzo, ondiño aitxeri esan ei tzon:

– Ondioko tunbata gelditxu de beyen ganin emon tzaten lepokadias!»

(A. Goenaga)

«Beste baten ere bai, gaztainatan joan ziren, gaztainatan, horiek eurei pasatutako gauzak dira, eta jakina! beteta ja zera, zorroak eta euren gaztainekin, justu justuan hemen dator zera, jabea, eta hori Sollo Patxero, hori itzela izaten ei zen, hark e, jakina! gurek eskapatu zuten, gure aita zerean gelditu katigatuta, ile kizkurra eukitzen zuenez, horrako zera, alanbraduria, zerean, eta handik azpitik sartzeko, ilea katigatuta baina besteak libratu ileak eta aita zafatu zen, eta Sollo Patxerok zer egin zion? arbolara igon, bertara gaztaina arbolara, eta hura goian eta jabea behean, halako makilla handi bategaz, jabea behean, eta:

– Zeu baxatuko zara! – ba:

– Ni baxatuko naiz, nekatuko zara zeu ere hor egoten ni baxatu orduko.
Esaten ei zion goitik, arbolatik, baina orduak izan ei ziren e! ordutan, eta ja-bea halakoren baten arbolaren eskinean e, jzarri eta hartu dizu erdi lo, sal-tatzen dio besteak arbola gainetik beraren lepoaren gainera, eta eskapatu dio, oraindino aitari esan ei zion:
– Oraindino etzanda gelditu da behearen gainean eman diodan lepoka-daz!».

15. TONTUNE

«Tontunek eta bai, tontune, eskondu sanin e, anaidxa bi ixen, da anaid-xa batek esaten ei tzon:

– Bueno su eskonduten sarenin egongo sara ixil ixil ixilik, maidxen be ba, eser esan bistasunin ingostasu seiñi maipetik neuri, sakadi kaderias.

Anaidxik esaten ei tzon bestiri, d'aur! e, etorri datzon bertan maidxen deusela, ba kaka itxeko gogue, beorreri, tonturi, da anaidxiri itxen ei tzon sa-kadi te, ba, es ei tzon itxen kasorik, d'aur! e, gero be, ba altza i san da, ko-mune on i san okopata, okopata on sanin txapie sutako altza, da an iñ i ban kaka sutan, gero sonbrero ba pe an e, onek etor sinek bodaraku pe, sonbre-rutan be kaka, dana kaka iñ i ban tontu orrek dana kaka, gure aitxek esate ban gusti ori, da gero ba, dxun sinin, altza sinin jenti:

– Amen deu atza! amen deu atza!

Da altza sonbreruek da dana kaka, suetan be, sue bistuten dxun sile seoser itxeko ta dana kaka, orre pai, aitxek esanekuk, tontune».

(L. Goenaga)

«Tontoarenak eta bai, tontoarena, ezkondu zenean e, anaia bi izan, eta anaia batek esaten ei zion:

– Beno zu ezkontzen zarenean egongo zara ixil ixil ixilik, mahaian ere ba, ezer esan behar didazunean egingo didazu seinale mahaipetik neuri, sakada oinez. Anaiak esaten ei zion besteari, eta hara hor! e, etorri zitzaion bertan mahaian dagozela, ba kaka egiteko gogo, berorri, tontoari, eta anaiari egiten ei zion sakada eta, ba, ez ei zion egiten kasurik, eta hara hor! e, gero ere, ba altxatu ei zen eta, komuna egon ei zen okupatuta, okupatuta egon zenean txapa suta-koa altxatu, eta han egin ei zuen kaka sutan, gero kapela bat ere han e, hauek etorri zirenak ezkontzarakoak ere, gure aitak esaten zuen guzti hori, eta gero ba, joan zirenean, altxatu zirenean jendea:

– Hemen dago hatsa! hemen dago hatsa!

Eta altxatu kapelak eta dena kaka, suetan ere, sua biztera joan zirela zerozer egiteko eta dena kaka, horiek bai, aitak esandakoak, tontoarena».

16. EZKONTZAKO BARAUA

«Ni eskondu nitxenin Don Agustiñek eskondu neuen, da goixin ixete san e, gixona ta bidxok konfesaten, goixin, da gero eskontzako ordun komulga gois gustidxen ba baraurik, ni barau baraurik andik eta eskonduteko ordu-rartin, ta nire gixonak selako amaiketako!:

– Ori esin su iñ

– Ene! suek iñorantzidxe dekosue! arek esan deuela ta dxan barik eser be eskontzako ordurartien, su nun bixi sara txikiña?»

(A. Goenaga)

«Ni ezkondu nintzenean Don Agustinek ezkondu ninduen, eta goizean izaten zen e, gizona eta biok konfesatzera, goizean, eta gero ezkontzako orduan komulgatu goiz osoan ba baraurik, ni barau baraurik handik eta ezkontzeko ordura artean, eta nire gizonak zelako hamaiketako!

– Hori ezin duzu egin.

– Ene! zuek inorantzia daukazue! hark esan duela eta jan barik ezer ere ezkontzako ordura artean, zu non bizi zara txikina?»

17. LAROTAEMERETZIKUK

«Larotaemeretzikuk, apellido andidxe dekoena! larotaemeretzikuk geu gara, larotaemeretzikuk esaten doskue ba, badiolatarrak e, asko garixelako, baya foruriatarrak ibil sile lanpara marabillosi e, Natxituneku bille ibil sinin ordun danak ixen ei sin larotaemeretzikuk gure ixen ei ben ixen, foruriatarra pe bille ibil sin te, lanpara marabillosi, ba ixen ei san gixon e, aberatza dxun san e, ona serera, esango tzut, urrin egon ei san, Mejikora ero dxun ei san, da ixen san, eukiñ ei ban e, Badiola apellidu ero Arteagabeitia, ixen ei san, estaipa Arteagabeitia Foruria askana ero estakitx ser, gixon ori dxun ei san, Eia-ku ixen ei san, Eia-ku semi, ta gure amumana ta da, bigarren ero irugarren lengusu te beste aldetik foruriatarra pe bai, d'aur! ori gixon ori, ixen ei san ba, bueno erentzidxe nai tta askanako apellidu dekonantzako be aberastute itxiko ei tzusen orrek gixon orrek, itxi ban dirun diru, iñor bes e, beorrek, da ortako aitxe ta ama, ixen ei sin pobre pobre pobrik, amen baserridxe Eia mandan, da bota ei tzoen, leiten da eskribiten be dxakin bes, da dirue Bilboko persona bateas ero, da esaten ei ben alkarrerri:

– Ser eskatuko tzegu? txaltxu baten dirue? – esaten ei ben eurek Bilbon da:

– Txaltxu batena asko esta ixengo ba? – eurek sertuten, alkarrerri, da bueno:

– Orixe eskatuko tzegu.

Aur! topa iñ i ben lelengo ser iñ ero selan, da emon ei tzon lelengo seu-ser dirue ta, or etorri sin etxera ta gero urrengun dxuteko esin topa potalik, dxakin es arek iñorantik koitxaduk, es numerorik es kalerik, Bilbon, da arenak, orrek artun ei ben dirue, gero il sanin beori gixon ori, esan tzut, gure amumak esaten ban, saldidxek eruten basen txilin gustidxek dana urri, da ixen ei san aren e, laugarren apellidu dekona be ba, baya total aberastute itxiteko ixen sala, baya orrek papelok, orixe esaten ben lanpara marabillosi, sabaldu san eukin bala orixe esakera bat, baporin etorri ei sin papelok, papelak onantzin ba nor da ser in bidan da gausi, da barku ori iñ ei san naufraga ta papelak aldendu da geratu de estaduntzat Mejikon dana, da karo! amen asi san ba, sublebasiñu, apellidukuk eta ixen sin foruriatarrak gure amuma ta be bai, da aitxik danak ibilli sin bille, da esate ben larotaemeretzikuk, desixen bate les guriri, da guriri desixen bate les esate bales larotaemeretzikuk, larotaemeretzigarrena pe dirue, aberastute geratuko ei sin, da gero gurik geratu sin larotaemeretzi, desixen batas orrexaitxik».

(L. Goenaga)

«Larogeta hemeretzikoak, abizen handia daukatena! larogeta hemeretzikoak geu gara, larogeta hemeretzikoak esaten digute ba, badiolatarrak e, asko garelako, baina foruriatarrak ibili zirela lanpara marabillosa e, Natxitunekoa bila

ibili zirenean orduan denak izan ei ziren larogeta hemeretziokoak gura izan ei zuten izan, foruriatarrak ere bila ibili ziren eta, lanpara marabilosoa, ba izan ei zen gizon e, aberatsa joan zen e, hona zerera, esango dizut, urrun egon ei zen, Mexikora edo joan ei zen, eta izan zen, euki ei zuen e, Badiola abizena edo Arteagabeitia, izan ei zen, ez dakit ba Arteagabeitia Foruria azkena edo ez dakit zer, gizon hori joan ei zen, Eakoa izan ei zen, Eako semea, eta gure amomarena ta da, bigarren edo hirugarren lehengusua eta beste aldetik foruriatarrak ere bai, eta hara hor! gizon hori, izan ei zen ba, beno oinordekotza nahiz eta azkeneko abizena daukanarentzat ere aberastuta utziko ei zituen gizon horrek, utzi zuen diruaren dirua, inor ere ez e, berorrek, eta horretarako aita eta ama, izan ei ziren pobre pobre pobreak, hemen baserria Ea aldean, eta bota ei zieten, irakurtzen eta idazten ere jakin ere ez, eta dirua Bilboko pertsona bategaz edo, eta esaten ei zuten (sic) elkarri:

– Zer eskatuko diogu? txahaltxo baten dirua? – esaten ei zuten eurek Bilbon eta:

– Txahaltxo batena asko ez da izango ba? – eurek zertzen elkarri, eta beno:

– Horixe eskatuko diogu.

Hara hor! topatu egin ei zuten lehenengo zer egin edo zelan, eta eman ei zion lehenengo zerozer dirua eta, hor etorri ziren etxera eta gero hurrengoan joateko ezin topatu ataririk, jakin ez haiek ignoranteak koitaduak, ez lumerorik ez kalerik, Bilbon, eta haienak, horiek hartu ei zuten dirua, gero hil zenean berori gizon hori, esan dizut, gure amomak esaten zuen, zaldiek eroaten zituazten txilin guztiak dena urrea, eta izan ei zen haren e, laugarren abizena daukana ere ba, baina guztiz aberastuta uzteko izan zela, baina paper horiek, horixe esaten zuten lanpara marabilosoa, zabaldu zen euki zuela horixe esakera bat, baporean etorri ei ziren paperok, paperak honantz ba nor eta zer egin behar den eta gauza, eta barku hori egin ei zen nafragatu eta paperak alden du eta geratu da estaduarentzat Mexikon dena, eta jakina! hemen hasi zen ba, matxinada, abizenekoak eta izan ziren foruriatarrak gure amoma eta ere bai, eta hargatik denak ibili ziren bila, eta esaten zuten larogeta hemeretziokoak, desizen bat bezala gureei, eta gureei desizen bat bezala esaten zuenez larogeta hemeretziokoak, larogeta hemeretzigarrenak ere dirua, aberastuta geratuko ei ziren, eta gero gureak geratu ziren larogeta hemeretzi, desizen bategaz horregatik».

18. ARLOTE

«Kamioyen dxun sanin de loritu, txoferrak neski artun, autostop itxen, da loritu eruban atzin, kamioik eru ban kargi ba, ollune, d'an dxun san ba loritu, an dxun san lorito bat, da orrek neska batek ikeran autostop artu ban Arlotek, ba aurrin e, beran ondun, da karo! Arlote asi datzo neskiri sirridxek itxen, sirridxek itxen da karo! neskik estotzon itxitxen, d'estotzonin itxi esan tzon:

– Hala fuera del camión!

Da karo! loritu asi san ollo gustidxeri sirridxek itxen:

– El que no quiera hacer sirris abajo camión. – da eldu sanin Arlote lekure, filature, da:

– Begira se karga daruten.

Da ainbeste ollo darusela, da dxun sanin ikusten sera, esan tzon estoyela lorito ba paño, da lorituri in tzonin erristan ia ser sertu dan, ba:

– El que no quiere sirris abajo del camión. – are pe danak utzitxu kanpora».

(L. Goenaga)

«Kamioian joan zenean eta lorotxoa, txoferrak neska hartu, autoestop egiten, eta lorotxoa eroan zuen atzean, kamioiak eroan zuen zama ba, oiloena, eta han joan zen ba lorotxoa, han joan zen lorotxo bat, eta horrek neska batek egikeran autostop hartu zuen Arlotek, ba aurrean e, beraren ondoan, eta jakina! Arlote hasi zaio neskari zirriak egiten, zirriak egiten eta jakina! neskak ez zion uzten, eta ez zionean utzi esan zion:

– Hala fuera del camión!

Eta jakina! lorotxoa hasi zen oilo guztiei zirriak egiten:

– El que no quiera hacer sirris abajo camión. – eta heldu zenean Arlote lekura, fieltora, eta:

– Begira ze karga daroadan.

Eta hainbeste oilo darotzala, eta joan zenean ikustera zera, esan zion ez doala lorotxo bat baino, eta lorotxoari egin zionean errietan ea zer zertu den, ba:

– El que no quiere sirris abajo del camión. – hark ere denak hustu kanpora».

19. IPUINEN AMAIERA

Hona orduko Elantxobeko ahozko narraziooi amaiera eman beharrean gaudenez gero, zelan hobeto bertako formula bat esanda baino?

«Inpoiñ inpoin beresi, auntzen babak egosi, su ortik eta emendik sarien artin nik danak iruntzi»⁴.

(K. Agote)

LABURPENA

Artikulu labur honetan Elantxoben jasotako ahozko narrazioen eredu batzuk ematen ditugu. Gaiei dagokionez, ipuinak, siniskerak, pasadizuak eta txistekak behintzat aurkezten ditugu. Balio literario eta etnografikoetan sartu barik, esan dezakegu, era honetako testuetan, bertako euskalkiaren ezaugarri nagusiak isalatzan direla oso ondo. Euskalkiaren berezitasun linguistikoez gain, kontaeraren ahozko ezaugarri nagusiak ere biltzen dira. Horrexegatik beragatik justifikatzen da euron argitalpena, izan ere, ahozko euskararen gramatikaren arauak deskribatzeko material baliagarria ematen digute.

Jatorrizko testuaren transkripzioaren aldamenean euskara batuaren bertsioa ere paratu dugu ulergarritasuna bermatzekotan.

RESUMEN

En este artículo presentamos algunos modelos de narraciones orales recogidas en Elantxobe. Con respecto a los temas, se recogen al menos cuentos, creencias, anécdotas y chistes. Dejando de lado los posibles valores literarios y etnográficos, podemos decir que en este tipo de textos se reflejan muy bien las características principales de la variedad local. Pero además de la peculiaridades lingüísticas, también se recogen las principales características del sistema oral de narración. Solamente por eso se justifica su publicación, ya que proporcionan un material adecuado para la posible descripción de las reglas de la gramática oral del euskara.

Al lado de la versión original de los textos hemos colocado otra en euskara estándar con el fin de facilitar la comprensión de los mismos.

4. Hau esanda umeari buruan kolpetxu bat ematen zitzaion.

RÉSUMÉ

Nous présentons dans cet article, quelques modèles de narrations orales recueillies à Elantxobe. En ce qui concerne les thèmes, on cense au moins des contes, des croyances, des anectodes et des histoires drôles. En laissant de côté les possibles valeurs littéraires et ethnographiques, nous pouvons dire que dans ce genre de textes, les caractéristiques principales de la variété locale se reflètent très bien. Mais en plus des particularités linguistiques, on trouve aussi les principales caractéristiques du système oral de narration. Sa publication se justifie seulement pour cela, puisqu'elles nous procurent un matériel adéquat pour une description possible des règles de la grammaire orale de l'euskara.

Nous avons joint à la version originale des textes, une autre en euskara standard afin d'en faciliter la compréhension.

ABSTRACT

In this article, we present various models of oral narratives collected in Elantxobe. With regard to the subject matter, this includes stories, beliefs, anecdotes and jokes. Apart from any possible literary and ethnographic value they may have, we can say that the principal characteristics of local variety are very well reflected in this type of text. However, in addition to the linguistic peculiarities, the main characteristics of the oral system of narration are also taken in. Their publication is justified for this reason alone as they provide suitable material for the possible description of the Basque oral grammar rules.

We have set out a version in standard Basque next to the original version of the texts with the object of facilitating their comprehension.